

1-Donostia 2016, Kultura, Euskara eta Hezkuntza

1-1 Donostia 2016

Udal-gobernuak uste sendoa du 2016 Europako Kultur Hiriburua aukera paregabea dela hiriarentzat. Hori dela eta, aktiboki lan egingo dugu Hiriburutzak Donostiak eta donostiarrok merezi dugun arrakasta izan dezan. **EZ DUTE EGIN**

Kultur Hiriburuaren Bulegoarekin elkarlanean arituko gara programaren berri emateko, komunikatzeko eta gizarteratzeko ekitaldiak eta ekintzak areagotzeko, herritarrek Donostia 2016 proiektuarekin eta hiriko eta lurraldeko agente sozial, kultural eta ekonomikoekin berriz ere bat egin dezaten. **LEHENDIK DATOR**

Udalaren eta hiriaren lidergo politiko eta soziala berreskuratuko dugu, alkatea buru izanik. Babes pribatuak lortzeko ahaleginak bikoiztuko ditugu, eta aliantza estrategikoak aktibatuko ditugu tokiko, nazioko eta nazioarteko hainbat esparrutako beste hiri batzuekin batera Donostiaren erakargarritasuna gehiago eta hobeto ikustarazteko eta bakearen eta elkarbizitzaren kultura duen hiriarekin loturiko kanpo proiektzioa areagotzeko. Eusko Jaurlaritzak Bruselan duen lankidetzak berebiziko garrantzia izango du European hiriburutzaren dimentsioa nabarmentzeko eta Europako gainerako lekuetan ezagutarazteko. **EZ DUTE EGIN**

Era berean, 2016 Europako Kultur Hiriak balio behar du Baiona-Bilbo euroherria eremu metropolitarra osatzen duten hiri eta udalerrien arteko lankidetzak eta elkarlanerako harremanak sendotzeko.

LEHENDIK DATOR

Hiriko erreferente kultural nagusiak (Musika Hamabostaldia, Zinemaldia, Jazzaldia, San Telmo museoa, Tabakalera eta abar) Donostia 2016 proiektuarekin elkarlanean aritzea lankidetzan aritzea babestu eta bultzatuko dugu. Erabat beharrezkoa ikusten dugu lankidetzak hori indartzea; izan ere, agente horiek jasoko dute Kultur Hiriaren ondarea 2016. urtea igaro ondoren eta ondorengo bi urteetan. **LEHENDIK DATOR**

Hiriburutzaren Bulegoarekin, 2016ko harrera integralerako plana bultzatzen jarraituko dugu, herritarren inplikazioa eta grina motibatuz eta suspertzuz, eta eraginkortasunez erantzuteko Europako Kultur Hiriburuaren gertakaria antolatuz eta ospatzeko beharrezko eraginkortasunez erantzuteko, hala garraioaren eta loturen azpiegiturei dagokienez, nola hotel eta turismo ekipamenduei dagokienez, bisitariei gure kale eta ekintzetan harrera egiteko. Planak ekintza hauek

jasoko ditu: informaziorako eta harrerarako bi bulego berri, mugikortasun iraunkorreko plana...

LEHENDIK DATOR (dena)

1-2 Kultura

Donostiako Kulturaren Aholkularitza Kontseilua sortzea, aholkularitzarako, harremanetarako, proposamenak edo eztabaidak egiteko, ebaluatzeko eta hiriaren kultura-politikaren jarraipena egiteko organo gisa. Hiriko hainbat eragile kulturalak –publikoak eta pribatuak– hartuko dute parte, Donostiako askotariko kultura adierazpenak ordezkatzeko. Kulturaren Aholkularitza Kontseilua izango da jarraian adierazitako puntuetan jasotako neurriak alderatzeko organoa. **EZ DUTE EGIN**

Euskal Kulturaren Kontseiluarekin elkarlanean aritzea, kulturaren ohiturak eta kontsumoa sustatuz. Horretarako, sektore bakoitzak –liburu-dendak, zinema-aretoak, antzokiak, musika programatzen duten espazioak– egiten duen hausnarketarekin bat egingo dugu, eta Udalak kulturaren kontsumoa sustatzeko bultzaz ditzakeen neurriak aztertuko ditugu. **LEHENDIK DATOR**

Helburua da beste udal batzuekin lankidetzan aritzea behar gehien duten diziplinetan programazio-zirkuituak antolatzeke eta sustatzeko, betiere Kulturaren Euskal Kontseiluak egiten duen hausnarketarekin bat etorriz. **LEHENDIK DATOR**

Kulturaren Euskal Batzordearekin partekatzea gure udalerriko esparruko diru-laguntzen mapa, baita mapa hori optimizatzeko neurriak ere. **LEHENDIK DATOR**

Irakurketa publikoaren Euskal Sarearekin lankidetzan aritzea, besteak beste, irakurketa sustatzea xede duten ekimenak martxan jartzeko. **LEHENDIK DATOR**

Hiriko kulturaren sustatzaile pribatuen lana erraztea izapide burokratikoak sinplifikatuz, espazio publikoen erabilera ahalbidetuz eta udal ekipamenduak erabiltzeko, eta ahalik eta gehien lagunduz mota guztietako ekitaldi eta ekintza kulturalak antolatzeke; izan ere, horien bidez nabarmen aberasten da hiriaren eskaintza kulturala eta lanpostu eta aukera berriak sortzen dira industria kultural, artistiko eta berritzaileen inguruan, bereziki artista eta sortzaile gazteentzat. **LEHENDIK DATOR**

Gaur egungo ekimen kultural asko diziplina anitzekoak dira, eta horrek eragiten du, sarritan, gure zentroetako batzuen espezializazio funtzionalak programazio hori eragozteka. Gomendatzen da zentro kulturalen udal espezializazioa gure errealitatera egokitzea. **EZ DUTE EGIN**

Nazioarteko jaialdiak eta ekitaldi kulturalak

Donostia hiria ezaguna da urte osoan egiten dituen ekitaldi kulturalengatik, baita nazioarteko jaialdiengatik ere. Hori dela eta, Udal Gobernuak gure jaialdiak eta ekitaldiak sendotuko ditu:

Donostia Zinemaldia, Jazzaldia, Musika Hamabostaldia, Giza Eskubideen Zinemaldia, Fantasiatzko eta Beldurrezko Zinemaren Astea eta Dferia dira kulturaren, garapen ekonomikoaren eta enpleguaren motoreak, hiriaren marka eta internalizazioa indartzen dutenak. Horien bidez, kalitateak edota ikusleen kopuruak gora egiten jarraitzeko beharrezkoak diren baliabide ekonomikoak bermatzen dira, munduan erreferenteak sortuz eta programazioan berrikuntzak eginez, diziplina berriei bide emanez eta publiko eta merkatu berriak irekiz. **LEHENDIK DATOR**

Kultur azpiegiturak

Kultur etxeak

Udal-gobernu honen helburua da kultur etheen eginkizuna –auzoetan erreferentziatzko espazio zibiko eta kulturalak diren heinean– bi zentzutan indartzea: alde batetik, herritarrentzat irekita dagoen ate gisa, herritarrekiko arretarako oinarrizko udal-zerbitzu deszentralizatuak eskaintzeko eta herritarren eskari, kezka eta ekimenean udal-antena gisa balio izateko; eta, bestetik, protagonismo handiagoa emateko auzoetako elkarte eta erakunde kultural eta sozialei programa kulturalak egitean eta espazioak eta zerbitzuak elkarrekin erabiltzeko kudeaketan. Horretarako, parte hartzeko mekanismoak jarri behar dira martxan, hitzarmenak eta akordioak sinatuz, Kultur etxeetako instalazio eta zerbitzuetan erabilera handiagoa eta erakargarriagoa izan dezaten erabiltzaileek, kulturaren beharrianak asetzeko. **LEHENDIK DATOR**

Antzoki Zaharra

Antzoki Zaharraren erabilera berritzea eta indartzea, erabilera anitzeko espazio kultural berria izan dadin eta musika eta arte eszenikoekin loturiko diziplina anitzeko programazioari bide emateko, kultura eta aisialdiaren eskaintza erakargarria eta interesgarria sortzeko gai izateko, eta bertan musikari eta sortzaileek lan egiteko nahiz euren jardueren berri emateko benetako aukerak izan ditzaten. **EZ DUTE EGIN**

Antzoki Zahar berriztatu honek kudeatzeko modu berria bilatuko du, eta dagoeneko finkatuta dauden ekimen kulturekiko lotura indartzeko eta hobetzeko balio behar du, oso garrantzitsuak baitira hiriarentzat; besteak beste, Fantasiatzko eta Beldurrezko Zinemaren Astea. **EZ DUTE EGIN**

San Telmo, euskal gizartearen eta herritarren museoa

- Gipuzkoako museoekin lankidetzan aritzea. Hala, San Telmo museoak lurraldeko museoen eskaintzan pieza gako eta Gipuzkoako gainerako museoetarako sarbide izaten jarraituko du.

LEHENDIK DATOR

- Elkarlanean aritzea ondoko lurraldeko museoekin orain arte egindakoa indartzeko eta elkarrekin lan egiteko bide berriak irekitzeko. Alde batetik, inguruko museoekin: Artium, Bonard museoa eta

Baionako Euskal Museoa, Bordeleko Arte Ederretako museoa edo Akitaniako museoa. **LEHENDIK DATOR**

- Eta, beste alde batetik, lankidetzarako bideak irekitzeko eta sendotzeko Europako erreferentziako museo sozialekin. Besteak beste, Herbeheretako Tropen Museum, Eskoziako Museo Nazionala, Lyongo Musée des Confluences de Lyon, Deutsches Historisches Museum, edo Kanadako Canadian Museum of Civilization eta Quebecoko Musée de la Civilisation. **EZ DUTE EGIN**

- Donostia 2016rekin garatzen ari den lankidetzarekin jarraitzea, eta lankidetzak horrek egungo gizarte-arazoei buruzko hausnarketan sakontzea xede duten ekimenak sustatzea. Era berean, Tabakalerarekin lankidetzan aritzeko bideak egituratzea. **LEHENDIK DATOR**

- Urte anitzeko partida ekonomikoa gaitzeko konpromisoa, horren bidez, Museorako funts berriak lortzeko programa egonkorrari bide emateko. **BAI, EGIN DUTE**

- Prestakuntza eta kualifikazio handia duten gazteentzako bekak deitzea, prestakuntza hobetu eta osa dezaten, eta Museoarentzat berarentzat lagungarriak izan daitezen ikertzeko jarduera areagotzeko edo bertako zerbitzuak hobetzeko. **EZ DUTE EGIN**

Tabakalera, Nazioarteko Kultura Garaikidearen Zentroa

-Tabakaleraren baitako kultura garaikidearen esparru sortzaile eta artistikoetan trebatzeko, hezteko eta zabaltzeko eginkizuna indartzea, publiko heterogeneoari bide emanez eta barne hartuz.

LEHENDIK DATOR

-Unibertsitatearen eta Lanbide Heziketaren esparruarekin lankidetzak sustatzea sormen garaikidearekin loturiko diziplinetan: arte plastikoak, ikusentzunezkoak, eszenikoak, moda, eta abar.

EZ DUTE EGIN

-Diziplina-aniztasunari bide ematea, arte plastikoen, ikus-entzunezkoen, eszenikoen, modaren eta profesionalen artean lan ildoak bultzatuz. **LEHENDIK DATOR**

- Kalostra Tabakaleraren proiektuan txertatzea, zentro hori izan behar duen modukoa izan dadin: erreferentziako zentroa, gure hirian eta lurraldean, kultura garaikidea sortzen, berritzen eta zabaltzen. **EZ DUTE EGIN**

- Kultura sortzailearen funtsa eta bokazioa indartzea, enpresen eta ekimen ekintzaileen mintegiaren izaera nahiz industria kulturaletan enplegua sortzeko izaera indartuz. **LEHENDIK DATOR**

- Esparru kultural gertuenarekin lankidetzak indartzea, Donostia Kulturarekin eta Kultur Hiriburutzarekin **LEHENDIK DATOR**

- Tabakaleraren liburutegi-mediateka indartzea eta zabaltzea, herritarrentzat erabilera handiko zerbitzua izan dadin. **LEHENDIK DATOR**
- Bere garaian egin zen proposamena aztertuko dugu, hau da, liburutegi zentralaren funtsak Tabakalera jartzearena. **EZ DUTE EGIN**
- Nazioarteko Zentroaren izaera indartzea, eta Tabakalera Europako kultura erreferentzia diren zentroekin harremanetan jartzea euren programen bidez. **LEHENDIK DATOR**
- Musika eta Dantzaren Udal Eskola Blas de Otero plazaren azpian handitzea, era berean, lagungarria izango da inguru berri honen bizitza kulturala aberasteko **EZ DUTE EGIN (EZER ONARTU GABE)**

1-3 Hezkuntza

Donostia **hiri hezitzailea izateko asmoz**, udal-gobernuak:

- Hitzarmen bat sinatuko du Eusko Jaurlaritzarekin ikastetxeak hobetzeko obren programa diruz laguntzeko, egonkortzeko eta behar bezala kudeatzeko eskolako instalazioak eta horien mantentze-lanak. **EZ DUTE EGIN**
- Diruz laguntzeko linea zehatzak ezarriko ditu: Hezkuntzako dirulaguntzetan honako bi irizpideak jasota daude ea udal gobernuaren helburua dirulaguntza zuzenak sortzea bada, ez du inolako aurrerapausorik eman: -Hezkuntza proiektu berritzaileetarako laguntzak. **EZ DUTE EGIN**
- Ikasleen artean giza-eskubideekin loturiko baloreak sustatzea xede duten eskolako proiektuetarako laguntza. **LEHENDIK DATOR**

Ikastetxeak

Haur Eskolen sarea handituko da legealdian, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailarekin bat etorritz:

- Aiete: haur eskola berria egungo Aieteko Ikastetxea eraikinean, Puio Lanberri eraikin berria lekualdatu ondoren. **LEHENDIK DATOR**
- Altza: haurreskola berria Jolastokietan. **BAI, EGIN DUTE**
- Haur eskola berri Loiolako Erriberan. **EZ DUTE EGIN**
- Gros, haur eskola berria Manteon. **EZ DUTE EGIN**

Hezkuntza balioetan oinarritutako jokabideak sortzeko baliabidetzat hartuta, hiria hezkuntza espaziotzat hartuko da, eta Hiri Hezitzaile programa sartuko du beste udal-esparru batzuetan; besteak beste, Plan Estrategikoan edo Donostia Kulturaren. **EZ DUTE EGIN**

Eskola Bidea bultzatuko du ikastetxeetara joateko bitarteko seguru eta jasangarri gisa. Eskolara Seguru programa martxan jartzea, ikastetxeetan sartu eta irteteko momentuetan segurtasuna hobetzeko, eskolako autobusen pasabidearen zirkulazioa barne. Programa egiteko, udal-guardiaren, eskolako komunitatearen eta herritarren parte-hartzea eta inplikazioa izango dugu, eta boluntarioen parte-hartzea ere egituratuko da segurtasunerako gailuetan. **LEHENDIK DATOR**

Ikastetxeak garbitzeko kontratatutako enpresek kontratuan jasotako betebeharrak betetzen dituztela kontrolatzea, zehazki, lanordua betetzeari dagokionez. Horretarako, beharrezkoak diren baliabide teknikoak eta giza baliabideak erabiliko dira. **EZ DUTE EGIN**

Unibertsitateak

Kultur programazioa unibertsitateetan sortutako jarduera eta sormen-lanetan txertatuz, eta, bereziki, datorren urtean, Europako Kultur Hiriburutzaren urtea izango baita. **BAI, EGIN DUTE**

Donostia Kulturarekin kulturaren programazioa nahiz hedapena koordinatuko dugu, unibertsitatearen eta udalaren programazioak elkarri lagundu eta elkarren osagarri izan daitezen. **EZ DUTE EGIN**

Unibertsitatearen aholkularitza espezializaturako bideak sortuz udalaren kudeaketa-esparru ezberdinetan, eta unibertsitateekin elkarlanean arituz hitzarmenak adosteko, eta horietan ikasleek hiriarekin loturiko esparruetan Gradu Bukaerako Lanak garatzeko aukera izan dezaten Gazteek hiriko arazoak konpontzeko ikuspegi berritzailea gaineratzeko balioko du. **BAI, EGIN DUTE**

Udalaren eta unibertsitateen artean programa bateratua martxan jarriz, hiriko arazo baten inguruan unibertsitateko gazteek konponbideak proposatzeko proiektuak aurkez ditzaten. Epaimahai batek proiekturik onena hautatuko du, eta «konponbide onenaren gazte-saria» emango du. Hala, “learning by doing” metodologiak sustatuko ditugu. **EZ DUTE EGIN**

-Unibertsitateko ikasleei udaletxean edo bere baitako erakundeetan praktikak egiteko erraztasunak emango zaizkie. **LEHENDIK DATOR**

1.4 Euskara

- Udalean bertan lan egingo du hiriaren hizkuntza-aberastasunarekiko eta unibertsitatearekiko errespetuaren aldeko kontzientziario zibikoaren programetan lan egingo du Donostiaren errealitate plural, ireki eta integratzailearen isla gisa. **LEHENDIK DATOR**

- Udalaren administrazioan euskararen erabilera normalizatzeko dinamika eta proposamenetan aurrerapausoak ematen jarraituko dugu, hiri osoan donostiarren benetako elebitasunari bide emateko. **LEHENDIK DATOR**

- Udalaren administrazioaren esparruan, Donostiako Udalaren euskararen erabilera normalizatzeko plana (2013-2017) garatzen jarraituko dugu. Arreta berezia jarriko dugu euskararen ezagutzatik benetako erabilera jausi egitean, udalaren administrazio-esparru guztietan areagotuz eta hedatuz (barneko eta kanpoko harremanak, aplikazio informatikoak, administrazio kontratuak...). **LEHENDIK DATOR**

- Hizkuntza ofizialen erabilera gauzatzeko irizpide orokorrak betetzen direla begiratuko dugu (ahoz eta idatziz eginiko jakinarazpenetan, tresna eta aplikazio informatikoetan, Interneteko sareetan, iragarkietan, publizitate eta kanpainetan edota diru-laguntzetan). **EZ DUTE EGIN**

Bestalde, Donostiako Udaletxeko Euskararen Normalizaziorako VI Plana idatziko dugu. Beti ere, egungo Planak izan dituen ebaluazio emaitzak eta Eusko Jaurlaritzako Politika Linguistikoko Sailburu ordearen ildoan arabera. Udalerrian euskararen erabilera bultzatzeko. **EZ DUTE EGIN (EZ DA EZER ERE ONARTU ORAINDIK)**

Familian ***belaunaldien arteko transmisioa*** indartzeko neurriak bultzatuko ditugu. Horretarako, helduen euskalduntzearen alde egiten jarraituko dugu, eta, batez ere, familia bat osatzeko garaian daudenen konpromisoa bilatuko dugu. Gaur egun, 30 eta 40 urte bitarteko donostiarren % 41,9 elebiduna da. Ehuneko horrek gora egiten jarrai dezan, gurasoen elkarteekin, herritarren elkarteekin, gazteekin eta abar lankidetzan aritzea proposatu dugu. Sentsibilizazio- eta informazio-kanpainak egingo ditugu etxean eta familiaren inguruan euskarak duen garrantzia azpimarratzeko. **LEHENDIK DATOR**

- Ostalaritzako eta merkataritzako profesionalekin batera lan egingo dugu. Jatetxe, taberna eta dendetan informazioa euskaraz izatea ahalegintzeaz gain, establezimendu horiei buruz web orrietan eta publizitatean ematen den informazioan ere euskararen presentzia areagotu nahi dugu.

LEHENDIK DATOR

- Elkarteekin batera lan egingo dugu, gazteen erreferenteak baitira. Helburua da sortzen duten informazio guztia –bere web orrialdeetan sartzen dutena eta sare sozialen bidez zabaltzen dutena– euskaraz egotea **LEHENDIK DATOR**

- Gurasoek seme-alabak D ereduan matrikulatzearen aldeko kanpainak egiten jarraituko dugu, eredu horrek bermatzen baitu hizkuntza-gaitasunaren maila onena. Hori bai, gurasoen borondatea errespetatuko dugu. **LEHENDIK DATOR**

- Euskararen ahozko erabilera sustatuko dugu. Horretarako, MINTZOLA fundazioarekin eta aisialdiko elkarteekin lankidetzan arituko gara, haurrentzako antolatutako ekintzetan ahozko adierazpena lantzeko. **LEHENDIK DATOR**

- Auzoak hartuko ditugu oinarri, euskararen erabilera bultzatzeko ardatz nagusi gisa: bai auzokideen elkarteetan, bai euskararen aldeko auzoen elkarteetan. Horien bidez, euskarak ostalaritzan, merkataritzan eta kaleko erabileran aurrerapausoak ematen jarraitzeko ekintzak gauzatuko dira. Kultur etxeak, era berean, auzo bakoitzak egiten dituen planetan txertatuko dira. **LEHENDIK DATOR**

- Euskararen presentzia indartuko da eskolaz kanpoko ekintzetan, kirol eta aisialdirako elkarteekin batera, Donostia Kirolarekin, eta abarrekin batera. **LEHENDIK DATOR**

- Auzoetako elkarteekin eta eskolekin arituko gara elkarlanean, hain zuzen, gurasoak kontzientziatzeko eskolaz kanpoko ekintzetan seme-alaben euskara indartzeak duen garrantziaren inguruan. **LEHENDIK DATOR**

- Kirol-elkarteekin lanean jarraituko dugu begiraleek euskaraz egin dezaten euren lana. **LEHENDIK DATOR**

Agente aktiboak izango gara artista, sortzaile, zientzialari, ekintzaile eta bestelakoen euskarazko lanak ekoizten, zabalitzen eta programatzen, betiere kontzientziaren ikuspuntutik, eta ez hizkuntzaren gaitasunetik abiatuta. Xedea da publiko zabalago eta heterogeneoetara hurbiltzea eta zabaltea. Horretarako, urteko zenbait jardunaldi antolatuko dira. **EZ DUTE EGIN**

Hizkuntzaren balio sinbolikoari eta funtzionalari buruz dugun pertzepzioa oso garrantzitsua da, eta horregatik uste dugu lehentasunezkoa dela gizartean duen ospea sustatzea. Horretarako, erreferentziatzko pertsonekin lan egingo dugu, batez ere, nerabe eta gazteentzat erreferenteak direnekin. Helburua: gazteentzat erreferenteak diren pertsonak (musika-esparrukoak, kirol-esparrukoak...) euskaraz hitz egitea, bakoitzak ahal duen moduan. **LEHENDIK DATOR**

Aintzat hartuko ditugu euskara ikasi dutenak eta ikasten ari direnak. Hala, urtero ekitaldi bat antolatuko dugu euskaltegiekin. **LEHENDIK DATOR**

Donostiako beste hizkuntzak

Donostian bi hizkuntza ofizialez gain erabiltzen diren beste hizkuntzak ikusgarri egin nahi ditugu. Horretarako: Hizkuntzen arteko elkarbizitzaren eta hizkuntza-dibertsitatearen alde lan egingo dugu, eta donostiar guztion ama-hizkuntza errespetatzen dugula erakutsiko dugu. Baloreen, gizabideen, elkarbizitzaren eta desberdinenganako errespetuaren aldeko heziketari bide emango diogu. Horretarako, elkarlanean arituko gara ikastetxeekin, kultur etxeekin, hiriko agente sozial eta kulturalarekin nahiz programa eta ekintzetan. **LEHENDIK DATOR**

II. Presidentetza eta Gardentasuna, Giza Baliabideak eta Berrikuntza

Presidentetza

-Administrazio-egitura bat diseinatzea; hartara, zerbitzu bateko edo zerbitzualde bateko unitateen arteko sinergiak errazteko, prozesu eta baliabideak ekonomizatzeko, hainbat zerbitzu-unitateren helburuak zehazteko, baterako helburuak lehenesteko, erabakiak hartzea errazteko, eta erabakiak hartzeko erantzukizun eta eskumenak zehazteko, besteak beste. **LEHENDIK DATOR**

-Bezero, zerbitzu eta baldintzen udal-mapa egitea, hornitzeko. **LEHENDIK DATOR**

-Kudeaketa publiko aurreratua hasiera batean ezartzeko prozesua hastea, Eusko Jaurlaritzarekin eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin koordinatuta. **LEHENDIK DATOR**

-Administrazio elektronikoa udal-administrazio osoan ezartzeko prozesua azkartzea, Berrikuntza Sailarekin lankidetzan. **BAI, EGIN DUTE**

-Ad hoc taldeak zuzendu eta kudeatzea, prozesu-ekonomiarako edo hainbat udal-departamentu egotea eskatzen duten herritarrentzako zerbitzuak ematerakoan sor daitezkeen arazoak konpontzeko. **LEHENDIK DATOR**

-Open Data erako datu-behatokia sortzea eta kudeatzea. Kudeatzaile eta sustatzaileak, gizarte-, ekonomia- eta ingurumen-datuak, udal-zerbitzuak, ekipamenduak, gizarte-zaugarritasuneko baldintzak, ekonomia publikoaren kudeaketa, inbertsioak, baliabide-kontsumoa, eta abar egituraz hornitzea, eguneratzea eta herritarren eskura jartzea. **LEHENDIK DATOR**

-Udal-zerbitzuak web-tresnen bidez jendaurrean jartzeko modua egituratu, eguneratu eta modernizatzea, Berrikuntza Sailarekin lankidetzan. **LEHENDIK DATOR**

-Zeharkako udal-politikak bultzatu eta indartzea; horretarako, horien emaitzak lortzea galarazi, atzeratu edo eragozten duten mugak edo oztopoak aztertzea, behar bezala tratatzeko eta konpontzeko. **LEHENDIK DATOR**

-Sinplifikatu, ekonomizatu eta ebaluatutako emaitzak aplikatu beharreko 40 udal-izapide estrategiko zehaztea. **BAI, EGIN DUTE**

-Udal-antolamendurako balio handia duten normalizazio-lanei eustea, zuzeneko kudeaketaren bidez.

LEHENDIK DATOR

-Udal-kudeaketa eta zerbitzu publikoen eskaintzen kudeaketa GUZTIEI buruzko (bi noranzkoko) komunikazio sinesgarri eta zuzena izatea herritarrekin (aurrez aurrekoa edo telefono bidezkoa). Horrek zeregin hauek ekarriko ditu, beste batzuen artean:

*Udalinforen bulegoek zuzenean kudeatzea 10 udal-izapide estrategiko (eragina, herritarrentzako onura, maiztasuna). **LEHENDIK DATOR**

*Herritarrak Artatzeko Zerbitzua herritarrek erraz identifika dezaketen ekipamendu bakar batean trinkotzea, eta horrek udal zerbitzuei buruzko komunikazio oso-oso berme osoz eskaintzea.

EZ DUTE EGIN

*Udal-agiritegiari beste ekipamendu bat ematea, eta horrek funtsak behar bezala gordetzea eta kontsulta- eta dokumentazio-zerbitzu hobea eskaintzea. **EZ DUTE EGIN**

*Dokumentu-funtsen inbentarioaren datu-base integratu bat sortzea. **EZ DUTE EGIN**

*Dokumentuak digitalizatzeko prozesuarekin aurrera jarraitzea. **LEHENDIK DATOR**

- Donostiarrei zerbitzu berriak eskaintzea, eta, horretarako, udal-espazioak erabilera berrietarako egokitzea. Esaterako, Aiete jauregia hil diren donostiarren ekitaldi ez-erlijiosoak egiteko erabiltzea.

EZ DUTE EGIN

Berrikuntza eta Gardentasuna

IKTak nagusi diren garai honetan ezinbestekoa izan behar du , legegaldi honetan zehar hiri osoan Wi-Fi sare ireki bat ezartzea. Beti ere, Europako Batzordearen emisio elektromagnetioen 1815/2011 ebazpena errespetatuz. **EZ DUTE EGIN**

Bestalde, gardentasunaren arloan legegintzaldi honetan markatuta dagoen ildo estrategikoaren oinarria da gardentasuna eta gobernu irekia bultzatzea, dela herritarrentzat, dela Udalean lan egiten duten pertsonentzat. Hona hemen helburuak:

- Puntuazioaren % 100 lortzea ITA (udalen gardentasun-adierazleak) eta DYNTRA gardentasun-adierazlerik zorrotzenetan. **EZ DUTE EGIN**

- Udal-webgunea birdiseinatzea, pertsonak behar dutena ahalik eta modurik errazenean aurkitzea lortzeko. Proiektu honetan hizkuntza gehiago sartuko dira, bai eta zailtasunak dituzten

pertsonentzako irisgarritasun-maila handiagoak ere; hartara, erabilera unibertsala eta inklusiboa izango da. **BAI, EGIN DUTE (ABIAN DA)**

- Herritarrei informazio zuzena ematea; horretarako, dagoeneko jarri dira webgunean alkatearen agenda eta hainbat dokumentu, esaterako, herritarrek udal-jarduerari buruzko informazioa izan ahal izateko gobernu-ituna. **BAI, EGIN DUTE**

- Onartuko diren plan estrategikoak eta udal-jarduerako planak argitaratzea. **EZ DUTE EGIN**

- Webguneko gardentasun-atala berrikustea, eta gardentasun-atari bilakatzea, Open Data espazio bat barne duela. **EZ DUTE EGIN**

- Udal-agiritegiaren web-atal bat sortzea, herritarrek agiritegiko dokumentuak kontsultatu ahal izan ditzaten. **EZ DUTE EGIN**

- Alegazioak online egiteko aukera izateko lan egitea, eta online parte hartzeko beste modu batzuk aztertzea. **BAI, EGIN DUTE**

- Herritarrek beren intereseko gaiei buruz egiten dituzten eskeak bideratzeko, informazioaren eta komunikazioaren teknologia (IKT) bidezko parte-hartze bideak sustatzen jarraitzea. Smart plataforma bat garatzea; hots, Open Data espazio bat, udal-zerbitzuen informazioa kudeatzeko, eta, hala, herritarrei parte hartzeko modu berriak eskaintzeko, gobernatzeko modu berriarekin bat, edo, beste era batera esanda, irekiago eta gardenago izateko. **EZ DUTE EGIN**

- Udal-garrantziko gaietan zuzenean parte hartzeko (baldin eta uste bada kontsulta bat egiteak erabakien legitimitatea indar dezakeela) tresna demokratikoak osatzea, dagokion zinegotzigoarekin batera. **BAI, EGIN DUTE (NAHIZ ETA EZEZKOAK ERE IZAN DIREN)**

- Diru-laguntzen kudeaketa automatizatzea, sozietate eta partikularrei edozer laguntza emateko prozesua erabat gardena eta arina izan dadin **EZ DUTE EGIN**

Giza Baliabideak

- Pertsonen garapenerako programa bat egitea eta onartzea, diagnostiko on batean oinarrituz zerbitzari publikoei eragiten dieten alderdi guztiak bilduko dituena. **BAI, EGIN DUTE**

- Gardentasuna izatea lan egiteko era barruko prozesu guztietan. Horretarako, barruko komunikazioa hobetuko da, langileak haiei eragiten dieten neurrien jakitun izateko modu gisa eta sistema parte

hartzaileak ezartzen hasteko oinarri gisa. Hori dena konfidentzialtasuna errespetatuz eta langile guztien datuak babestuz egingo da. **BAI, EGIN DUTE**

- Jendea biltzea lan eskaintzen edo ordezkapen poltsen bidez. Udalean eta haren enpresa publikoetan sartzen diren pertsona horiek, ezagutza ez ezik, zerbitzu publikorako eskumenak eta jarrerak ere izan behar dituzte; horretarako diseinatutako proben bidez neurtuko da hori. Helburua beti izango da zerbitzu publikorako jende onena lortzea. **EZ DUTE EGIN**

- Giza baliabideen arloan berritzaile izatea, gauzak egiteko modu berriak eta hobeak bilatuz eta erabakiak hartzeko orduan langileen parte hartzea sustatuz. Partaidetzako zuzendaritzaren formak eta neurriak aztertuko dira. Eta zeharkako lantaldeak jarriko dira martxan, bai eta talde laneko sistemak ezartzea dakarten bestelako formulak ere. **EZ DUTE EGIN**

- Kontziliazioa eta berdintasuna hobetzeko bideak aztertzea. Osasun eta kontziliazio arazo batzuk izaten direnean puntualki tele-lana egiteko modua izatea aztertuko da. Emakume gutxi diren alor edo zerbitzuetan emakumeek postu batzuk betetzeko diren oztopoak ere kendu egingo dira. **EZ DUTE EGIN**

- Pertsonen segurtasuna eta osasuna handitzea. Arrisku psiko-sozialaren aldetik eta pertsonak gustura ez izatetik sor daitezkeen arazoak aztertuko dira. Zerbitzari publikoak babestea, langile guztia, duen eginkizuna duela ere, errespetatzeko neurriak bultzatuta. Helburu hori lortzeko, besteak beste agente eginkizunak bete behar dituzten pertsonak prestatu eta aukeratuko dira. Lan ingurune eraginkorrak sortzeko lan egingo da. **LEHENDIK DATOR**

- Giza Baliabideetako Zuzendaritzaren plan estrategiko bat egin eta onartzea, zuzendaritza eraginkorra, prestatuagoa eta lana helburu argi batzuen arabera lehenetsita izateko balioko duena, kudeaketa lehentasun eta adierazle batzuk ere izango dituen, langile guztientzako balio izateko modukoak. **BAI, EGIN DUTE**

- Aurren-aurreneko helburutzat, zerbitzari publikoak 2016ko erronkarako prestatzea eta gaitzea izango da. Hartarako, estutu egingo da Udaleko Bulego Teknikoarekiko nahiz Fundazioarekiko lankidetzak, indartu behar diren zuzendaritzak indartuta. **LEHENDIK DATOR**

III. Ogasuna eta Finantzak

- Urrian egingo den hiriaren egoerari buruzko eztabaidetan aurrekontuaren ildo garrantzitsuenak aurkeztea, eta azaroan, aurrekontu-proiektua onartzea, betiere partaidetza-prozesuetan sortutako proposamenak txertatuz, eta horiek herritarrei eta Hiriko Gizarte Kontseiluari aurkeztea. **BAI, EGIN DUTE**
- Udalbatzako alderdi politikoaren artean ahalik eta adostasunik handiena sustatuko dugu gai ekonomikoari dagokienez. **EZ DUTE EGIN**
- 2016ko aurrekontura ezohiko udal-gastuei aurre egiteko beharrezko baliabide ekonomikoak gehitzea, Europako Kultur Hiriburutzatik eratorri diren eta kulturalak ez diren beste zerbitzu batzuetan (mugikortasuna, segurtasuna, hiriaren mantenua...), gutxienez, 4,5 milioi euro. **BAI, EGIN DUTE**
- 2016ko aurrekontuan, aurreko ekitaldian egindako partaidetza-prozesutik eratorritako herritarren hainbat proposamen hartuko dira kontuan. **BAI, EGIN DUTE**
- Hurrengo aurrekontuak egiteko orduan partaidetza-prozesu hori sendotuko da metodologia berri bat erabiliz, baita genero-ikuspegia ere. **EZ DUTE EGIN**
- Zorpetze maila kontabilitate nazionalaren terminoetan mantenduko dugu, honako bi helburu hauekin: batetik, aurreikusitako gehieneko mugen barnean eroso mantentzea –2016. urtean % 80koa izango da seguruenik, eta 2020an % 70era iritsiko da–; eta bestetik, finantziario-gaitasunik ez galtzea. **BAI, EGIN DUTE**
- Aurrezki arrunteko helburua zehaztea, hura inbertsiora xedatzeko. Legealdian zehar, diru-sarrera arrunten % 5 eta 10 artean kokatu daiteke, eta, hala, baliabide egonkorak bermatuko dira hiria eta haren auzoak modernizatzeko. **BAI, EGIN DUTE**
- Kapital-sarreraren aurrekontu-zenbatespena egiteko orduan zuhurtasuna eskatzea, eta aurrekontuetan behin eta berriz txertatu diren baina oraindik gauzatu ez direnak materializatzeko orduan arretaz jokatzeko. **EZ DUTE EGIN**
- Gastuari eman beharreko lehentasuna finkatu eta, gero, hura gauzatzen dela kontrolatzea. **BAI, EGIN DUTE**

- Erakunde publiko eta pribatuen babeseta eta diru-laguntzak lortzea, hiriko proiektu estrategikoetarako. **EZ DUTE EGIN**
- Gizarte-politiketara xedaturiko baliabideak blindatzea, zaurgarritasun- edo beharizan-egoeran dauden herritar guztien premiak estali ahal izateko. **EZ DUTE EGIN**
- Gizarte-ongizatearen esparruko udal-eskumenek gora egin dute azken urteetan, eta, horregatik, administrazioetatik jasotzen dugun gizarteongizateko eskumenetara xedaturiko finantziarioak hobetuko dugu, besteak beste. **EZ DUTE EGIN**
- Gure Udalak Udal Finantzaketarako Foru Fondoan duen maila hobetzeko lan egingo dugu, eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin elkar lana bultzatuko dugu udal zergetan eragina duten Arau Foralen egokitzapenean. **EZ DUTE EGIN**
- Zenbait formulari lehentasuna emango diegu, sozietate misto bidezko lagapenari edo kudeaketari, adibidez, betiere lankidetzara publiko-pribatua oinarrituz, horien bitartez, hiriarentzat estrategikoak diren jarduerak garatzeko balio duen edo balio dezakeen ondarea aztertu eta hari balioa eman ahal izango baita. **EZ DUTE EGIN**
- Udalarentzat eta haren sustatzaileentzat emaitza onak ematen ari ez diren administrazio-emakida batzuk hobetzea, Bretxaren edo Arcco Amareren kasuan, esaterako. **EZ DUTE EGIN**
- Enkistatutako ondare alorreko arazoak ebazteko beharrezko ahaleginak egitea, Illunbeko konplexuari edo Atotxa-Errekako partzeleki dagokienez, adibidez. **BAI, EGIN DUTE**
- Udal-zergei dagokienez, proposamen fiskala bi parametro hauen bilakaeran oinarritzea: KPI eta zerbitzuen kostuetan eragiten duten beste faktore batzuk, tasei, zergei eta, oro har, prezio publikoei atxikitako zerbitzuen kostu horrek izan duen bilakaeraren isla gisa; eta hiriko BPG per capita, gure herritarren errentak izan duen bilakaeraren eta horien gastatzeko gaitasunaren isla gisa. **BAI, EGIN DUTE**
- Defizit gehien sortzen duten tasak partzialki berrerekatzea, diru-sarreretan nahiz gastuetan jardunez. **BAI, EGIN DUTE**
- Bestalde, eta zerga bakoitzaren izaerari jarraiki, gizarte-izaerako nahiz jarduera ekonomikoa eta enplegua sustatzera xedaturiko hobariak zehaztea edo mantentzea.

*Horrekin bat etorritik: Ondasun higiezinaren gaineko zergari dagokionez, familia ugarietarako hobariak mantentzea eta guraso bakarreko familientzat antzeko hobari-sistema bat sustatzea. **BAI, EGIN DUTE**

*Ekonomia-jardueren gaineko zergari dagokionez, enplegua sortzeagatik edo oinarri teknologikoko enpresetan inbertitzeagatik hobariak mantentzea. **LEHENDIK DATOR**

*Eraikuntzen, instalazioen eta obren gaineko zergari dagokionez, eraikinak birgaitzera xedaturiko hobariak mantentzea edo ezartzea, 2016. urteko kultur hiriburutzari begira batez ere, eta establezimendu eta enpresetan hobekuntza-lanak egitea. Etxebizitzen hobekuntza energetikoarekin lotutako jarduketak saritzeko hobariak sustatzea. **LEHENDIK DATOR**

Kontratazio publikoaren arloan:

- Udalak egiten dituen administrazio-kontratueta gizarte-, ingurumen-, etika-, lan-, hizkuntza- eta berdintasun-baldintzak hobeto betetzen direla bermatzea. 45 urtetik gorako donostiarren enplegua sustatu nahi dugu batez ere –ez ahaztu horiek direla enplegarritasun okerrena duten sektorea–, eta horretarako, kontratu batzuetan gizarte-izaerako klausulak txertatuko dira, horien enplegarritasuna sustatzeko, hain zuzen. **EZ DUTE EGIN**

- Kontratazio-zerbitzua modu egokian berritu dadila sustatzea, bere funtzioak betetzeko beharrezko langileak izan ditzan. **EZ DUTE EGIN**

- Pertsona fisiko edo juridiko donostiarren erregistro bat sortzea, hala, beren zerbitzuak edo ondasunak eskaini nahi dituzten hiriko enpresa txikiek edo autonomoek bertan txertatzeko aukera izan dezaten. Erregistro hori kontratu txikiatarako erabiliko da, publizitaterik behar ez duten prozeduren bitartez esleitu daitezkeen kontratuatarako, alegia. **EZ DUTE EGIN**

IV. Mugikortasuna eta Garraioa

Oinezkoentzat hiria irabaztea

- Belartzako hauspen-zentrotik dagokion banaketak egiteko furgoneta elektriko bat gaitzea. **EZ DUTE EGIN**
- Enpresa handietan eta banaketa-enpresetan ibilgailu garbiak sustatzeko kanpaina. **EZ DUTE EGIN**
- 18 metroko autobus hibrido bidezko linea baten azterketa eta DEMOA. **LEHENDIK DATOR**
- Lur gaineko eta lur azpiko aparkalekuen tarifakazioa aztertzea, isurpen kutsagarriak kontuan hartuta. **EZ DUTE EGIN**
- Hirian 30 plana ezartzeko demoa. **EZ DUTE EGIN**
- Donostia Lagunkoiaren laguntzarekin, urtero programa horretan zehaztutako irisgarritasuna hobetzearekin lotutako helburu batzuk lortzeko finantziakzioa eskainiko dugu. **EZ DUTE EGIN**
- Zoladura jarraitua Getaria eta Txurruka kaleak lotzeko, Askatasunaren Hiribidea gurutzatuz, edo Garibai eta Hondarribia kaleak lotzeko, modu berean. **EZ DUTE EGIN**
- Zoladura jarraitua Urbieta eta San Martin Merkatuko eremua hobetzeko. **EZ DUTE EGIN**
- Artzain Ona-Arte Ederrak ardatza indartzea. **EZ DUTE EGIN**
- Garibai kalea oinezkoentzako kale bihurtzea. **EZ DUTE EGIN**
- Oinezkotze arinak Birmingham, Zabaleta edo Carquizano kaleetan. **EZ DUTE EGIN**
- Nazional zaharretik Oleta auzora joateko sarbidea hobetzea. **EZ DUTE EGIN**
- Carlos I.eko oztoporik gabeko Amara berriak oinezkoentzat xedaturiko beste jarduketa batzuk gauzatzea ahalbidetuko du, hala nola, Isabel II.a kaleko edo Gregorio Ordoñez kaleko gune batzuk oinezkoentzat bihurtzea. **EZ DUTE EGIN**
- Herreran, Bidebietan, Gaiztarroren eta San Antonio auzoaren arteko oinezkoen loturei dagokienez lan egingo dugu. Gainera, Aterpe zahar-etxearen inguruko oztopo arkitektonikoak kenduko dira **EZ DUTE EGIN**

- Era berean, aldi baterako oinezkotze-programa bat aztertuko da; haren bitartez, pertsona asko ibiltzen diren egunetan hiriko bidegurutze batzuetan izaten diren oinezkoen pilaketei erantzun ahal izango zaie. 2016. urteak esperientzia pilotu gisa balioko du. **EZ DUTE EGIN**

Trafikoa arintzea - Bidegorriak - 30 eremuak

- Aiete auzoan, Aieteko pasealekua eta harekin muga egiten duten eremuak baretzeko proiektu bat egingo dugu, bertatik igarotzen diren ibilgailuen abiadura murrizteko helburuarekin. **LEHENDIK DATOR**

- Altzan, irisgarritasuna hobetzeko jarduketa integral bat planifikatu da. **EZ DUTE EGIN**

- Bidegorri-zati hauek eraikitzea planifikatu da: Lau Haizeta parkea Altzako kiroldegiarekin lotzen duena, eta Trintxerpe Herrerarekin lotzen duena, Gomistegiko biribilgunearen bitartez. **EZ DUTE EGIN**

- Ategorrietako Galtzada Zaharra aztertu eta hobetzea, oinezko, ibilgailu pribatu eta txirrindularien arteko elkargune-arazoak konpontzeko. **BAI, EGIN DUTE**

- Julimasenen espaloia eraikitzea eta kalea behar bezala seinaleztatzea. **BAI, EGIN DUTE (ABIAN)**

- Intxaurrendoko hobekuntzak, hala nola, Basotxiki kaleko 30 eremuen bitartez eta Intxaurrendoko Zaharra zahar-egoitzaren inguruko oztopo arkitektonikoak ezabatuz. **BAI, EGIN DUTE (ABIAN)**

Garraio publiko kolektiboa

- Donostiako Tranbia Konpainiaren garaje-instalazioak handitzea. **LEHENDIK DATOR**

- DBUS zerbitzua Donostiako autobus-geltoki berrira egokituko da, eta horretarako, bi linea berri sortuko dira (autobus-geltokia Boulevardarekin lotzen duen 44. linea eta geltokia unibertsitateekin lotzen duen 45. linea). Gainera, 17. linea ospitaleetara arte luzatuko da. **LEHENDIK DATOR**

- Morlans-San Antoniora doazen linea eta maiztasun gehiago aztertuko ditugu, baita Aiete Pagolara doazenen maiztasun berriak **BAI, EGIN DUTE**

- Pixkanaka, garraio publikoaren higarri eta geltokien irisgarritasun orokorra hobetuko da. **BAI, EGIN DUTE**

- Ibilgailu garbiekin, Martutenera doan linea azkar bat abian jartzea. **LEHENDIK DATOR**

-Hiri osorako, baina batez ere Amara Zaharra auzorako jarduketa garrantzitsuenetako bat Easoko trenbide-zelaiak hartzen duen lursailaren urbanizazioa izango da. Jarduketa horri esker, hiriaren erdiguneko gune hori liberalizatu egingo da eta, hala, berriz hiritartu eta ahal izango da, planeamendu egoki eta lagunkoiago bat erabiliz. Udal-gobernuak gune horren diseinua adostuko du ETSrekin batera. **BAI, EGIN DUTE (ABIAN)**

Disuasio-aparkalekuak

- Udal-gobernuak disuasio-aparkalekuak gaitu nahi ditu garraio-zerbitzuetatik gertu dauden inguruetan. Udala bi exekuzio-proiektu lantzen ari da Loiolako Erriberan eta Martutenen. **EZ DUTE EGIN**

Bizikletak eta mailegu-bizikletak

- Gainera, pertsona asko pilotzen diren ekitaldi eta momentuetarako aparkaleku mugikorrek erabili eta kokatzearen aldeko apustua egiten du gobernu honek, betiere kasuan kasuko premiak kontuan hartuta eta bertara bizikletaz gerturaz diren pertsonen premiak estaltzeko helburuarekin. **BAI, EGIN DUTE (ABIAN)**

- Tabakalera ondoan bizikletentzako aparkaleku bat eraikitzea eta egokitzea planifikatu da, horren garrantzitsua izango den truke modalerako puntu horren inguruan. **LEHENDIK DATOR**

- Horrez gain, bizikleta pribatuaren erabilera sustatzen saiatuko gara, lur azpiko aparkalekuetan nahiz bide publikoan bizikletentzako aparkalekuak gaituz. **LEHENDIK DATOR**

- Eta DBizi sistemaren atalarekin amaitzeko, zerbitzuaren maila berreskuratzeko ekarpen ekonomiko batekin jardungo dugu, 2016an zehar hari nolabaiteko jasangarritasuna eta jarraitutasuna emateko, eta, ondoren, hurrengo urteetarako zerbitzuaren inguruko behin betiko erabaki bat hartzeko. Epe motzera, inbertitutako diruak zerbitzu eraginkorragoa eskain dezala eta iraunkorra izan dadila ahalbidetzeko hainbat neurri hartuko ditugu. **BAI, EGIN DUTE**

- Bizikletak alokatzeko zerbitzua erabiltzeko praktika egokien eta sentsibilizaziorako kanpainak jarriko dira abian. **BAI, EGIN DUTE**

- Sistemaren sendotasuna indartu eta areagotuko da, ainguralekuetan nahiz kudeaketa-sisteman.

BAI, EGIN DUTE

- Udaltzainekin batera, bandalismoari aurre egiteko zerbitzuaren babesa planifikatuko da. **BAI, EGIN DUTE**

Garraioaren kudeaketa eta planifikazioa

- Bi ibilgailu elektriko erosiko dira 26. linearako. **LEHENDIK DATOR**

- Karga pribaturako 50 puntu instalatuko dira. **EZ DUTE EGIN**

- Elektro-mugikortasun kudeaketa: Eskala handiko ibilgailu elektrikoetarako aparkalekua eta azpiegitura, ibilgailu arruntaren mugikortasunerako informazio-sistema txertatu behar duena. **EZ DUTE EGIN**

- Mugikortasunarekin lotutako zerbitzuen hornidura: diagnostikoa, O/D matrizea, trafiko-mapak, trafiko modalaren analisiak, txostenak... **BAI, EGIN DUTE (ABIAN)**

Era berean, Udalak gailu mugikorretarako aplikazio informatiko bat jarri nahi du martxan, aparkatu nahi den ibilgailuaren datuak eta bankuko datuak txertatu ostean, TAO txartela aplikazio horren bitartez lortu ahal izateko. Aparkatzeko TAO zerbitzua hobeto kudeatu ahal izango da aplikazio horri esker, aparkatzeko denbora luzatu nahi bada nahiz gastatu ez denari dagokion zenbatekoa berreskuratu nahi bada, ibilgailua aparkatu den denbora-tartea murriztuz gero. **BAI, EGIN DUTE**

Atal honetan, aipamen berezia egin behar zaie motorrei, azken urteetan arazo jakin bat sortu baitute, eta arazo hori behar bezala aztertu eta konpondu beharko dugu. **EZ DUTE EGIN**

Garraio bertikala

Garraio bertikalari dagokionez (eskailera mekanikoak, arrapalak edo igogailuak), legealdi honetako konpromisoa dagokion azterketa egin eta aurrekontuak ahalbidetzen duena gauzatzea izango da. Horrekin loturik, honako proiektu hauek ditugu:

- Aiete eta Morlans arteko igogailuaren proiektua. **BAI, EGIN DUTE (ABIAN)**

- Larratxo kaleko 56.eko igogailua, Larratxoko igogailuekin amaitzeko. **BAI, EGIN DUTE (ABIAN)**

- Herrera eta Roteta arteko igogailua. **EZ DUTE EGIN**
- Herrerako eta Bidebietako zahar-etxera joateko igogailua. **EZ DUTE EGIN**
- Igogailu-proiektua Erregezaintzan, Gantxegin eta Heriz Pasealekuan. **EZ DUTE EGIN**
- Mandasko Dukearen eta Aldakoenea arteko igogailuaren exekuzioproiektuak. **EZ DUTE EGIN**
- Arrapalak Amara Zaharrea (Osasuniturri kalea). **EZ DUTE EGIN**

Udalak zehaztutako herritarren partaidetzarako departamentuaren bitartez,

bizilagunekin beharrezkotzat jotzen diren bilerak egin ostean erabaki edo lehenetsiko

dira. **BAI, EGIN DUTE (ABIAN)**

Abiadura Handiko Trena

Abiadura handiko trenaren iritsiera oso une garrantzitsua izango da gure hiriarentzat. Etorkizuneko geltokia zehaztuko duen Batzorde Teknikoa, Tabakalera inguruan, zenbait alderdi tekniko eta xehetasun lantzen ari da eta, beraz, txertaketa-lana nahiko aurreratuta dagoela esan genezake. **BAI, EGIN DUTE**

Beste ekintza batzuk

Gobernu honen helburuetako bat RENFerekin konpromiso bat lortzea izango da, hark Intxaurrendoko trenbideak lurperatzeko lanekin eta Herrerako geltokiari irisgarritasun egokia eskaintzeko aldaketekin jarraitu dezan. **EZ DUTE EGIN**

Trenbide-garraioaren bitartez konektibitatearen Donostiako mapa amaitzeko beste proiektu estrategiko bat Loiolako Erriberako alda-geltokia eraikitzea da. Eusko Jaurlaritzarekin eta ADIFekin hitzarmen bat sustatuko dugu trenbide-azpiegitura hori eraiki ahal izateko, Donostialdeko metroaren pasabidearekin egindako moduan, hura ere funtsezkoa baita Gipuzkoako lurralde osoa lotzeko. **EZ DUTE EGIN**

Mugikortasun pribatuari dagokionez, aparkatzeko zailtasunak dituzten auzoetan (Altzan, Herreran eta Bidebietan) aparkaleku berriak egiteko guneak bilatuko ditugu, partida ekonomikoek ahalbidetzen duten neurrian. **EZ DUTE EGIN (Oletakoa BAI, BIDEAN)**

Carlos I.a kaleko bide-horma birmoldatu ostean, Pio XII.a plaza birmoldatzeko proiektuan eta exekuzioan zentratuko da udal-konpromisoa. Pio XII.a plazaren sarbidea hiriko garrantzitsuenetako bat da, eta hirigintza- eta mugikortasun-plangintzaren beste konfigurazio bat behar du, Carlos I.ean gertatutako aldaketak eta gaur egungo autobusgeltokiaren lekualdaketa direla eta. **EZ DUTE EGIN**

Orain arte ebatzi ez den eta orain konpondu nahi dugun beste arazo bat lur azpiko aparkalekuetan saldu gabe dauden aparkalekuak dira, horiek hipotekatu egiten baitute Udala. **EZ DUTE EGIN**

Taxi-zerbitzuari dagokionez, horiekin batera lan egiten ari gara. Erabiltzaileei zerbitzu egokia eskainiko dieten joan-etorri eraginkorrak lortu nahi ditugu, eta hiriko garraio sarea osatzen duen beste modu baten gisa har dadila nahi dugu. Tabakalera inguruko taxi-, tren- eta autobus-geltokia behar bezala zehaztu behar dugu. **EZ DUTE EGIN**

V. Gizarte Ekintza

Legearen arabera eta Udalaren irizpideen arabera baldintzak betetzen dituzten Gizarte Larrialdietarako Laguntzen eskaera guztiei erantzutea. **BAI, EGIN DUTE**

Laguntza zehatzagoi heltzea, “elkarlanaren aldeko laguntzei”, alegia. **BAI, EGIN DUTE**

HESTIA –gizarte-bazterkeriaren egoeran dauden pertsonentzako EGUNEKO arreta-zerbitzua-hobetuko dugu. Hona hemen, zerbitzu horren baitan jorratuko ditugun erronkak: zerbitzu horretarako kokaleku egokia bilatzea eta kalitateko zerbitzua emateko ekipamendua zehaztea. **EZ DUTE EGIN**

Apartamentu babestuen eredia ezarriko dugu bazterkeria_egoera dauden pertsonentzat Donostian, zerbituaren inguruko hausnarketa eta definizioa egin ostean. **EZ DUTE EGIN**

Programaren baitan sartuko diren etxebizitzak hornitzeko estrategia zehaztuko dugu. **EZ DUTE EGIN**

GAUEKORI dagokionez, zerbitzua hiru urtez martxan egon ostean, egungo lokala egokitu behar dugu arretaren kalitatea nahiz zerbitzuan lanean ari diren langileen lan-baldintzakhobetzeko. Gainera, beste kokaleku bat bilatu behar da zentrorako. **EZ DUTE EGIN**

Gizarte Ekintza Departamentuaren eta Etxegintzaren bidez koordinatuko dugu ekintza, gizarte-larrialdietarako etxebizitzaren eskari gero eta handiagoari aurre egiteko. **EZ DUTE EGIN**

Indarrean dauden baliabideen araudiak egokituko ditugu (Abegi Etxea eta Gizarte Larrialdietarako etxebizitzak), gaur egun dauden beharrezan hobeto erantzuteko. **EZ DUTE EGIN**

Gizarte-bazterkeriaren egoera larrian dauden pertsonen erantzun egokiagoa emateko, erakunde arteko koordinazio-esparruak ezarriko ditugu; zehazki, hauen artean: Udala, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Eusko Jaurlaritzaren (Osasun Mentala). **LEHENDIK DATOR**

Gizarte-bazterkeriaren esparruan jarduten duten hirugarren sektoreko erakundeekin koordinazioa eta lankidetzaren areagotuko dugu. **LEHENDIK DATOR**

Prebentzio, Haur eta Familia Zerbitzua sendotuko dugu, haur-babesgabetasunaren kasuak aztertzeke, koordinatzeko eta jarraipena egiteko. Horretarako, prestakuntza, aholkularitza eta esku-hartzeko programa bat ezarriko da. **LEHENDIK DATOR**

Bullyng-aren aurkako prebentzio programa. **LEHENDIK DATOR**

Jazarpena, larderia eta tratu iraingarria jasan duten gazteentzako aholkularitza-programa bat sortuko dugu. **EZ DUTE EGIN**

Prebentziorako ekintza-programa genero-indarkeriaren egoerak gertutik bizik dituzten kolektiboentzat egingo dugu. **EZ DUTE EGIN**

Ikasleen artean giza eskubideekin loturiko baloreak sustatzea xede duten eskolako proiektuetarako diru-laguntzak ematen jarraituko dugu. **LEHENDIK DATOR**

Egokitu egingo dugu gaur egun dugun ostatuaren zorroa; hain justu, kopurua, ekipamenduekin nahiz zerbitzuekin loturiko alderdiak eta minusbaliotasunaren I. maila aitortua duten pertsonentzako babesa. **EZ DUTE EGIN**

Etxez etxeko zerbitzua lehiakorra izateko prezio publiko egokia ezarriko dugu. **BAI, EGIN DUTE**

Etxez Etxeko Zerbitzuaren araudia aldatuko dugu, adineko donostiarrek eskatzen dituzten zerbitzuetara egokitzeko. **EZ DUTE EGIN**

GOIZALDIAK zerbitzuaren beharrianak aztertu eta pixkanaka-pixkanaka hiriko auzo guztietara zabalduko dugu zerbitzua. **EZ DUTE EGIN**

Etxean inor sartzea nahi ez duten adineko pertsonen arreta jorratuko dugu (bakarrik edo adineko beste batzuekin bizi diren eta gizarte-zerbitzuen erabiltzaile ez diren adineko pertsonen edo arreta zerbitzua). **LEHENDIK DATOR**

Laguntzak zehaztu ditugu adineko pertsoneri laguntzeko neurri teknikoak ezartzeko, segurtasun neurriak barne. **LEHENDIK DATOR**

Etxebizitzak trukatzeko modua bilatuko dugu, adineko pertsonen aukera izan dezaten inguru berean irisgarritasun-beharrizanei begira egokiagoak diren etxebizitzak lortzeko. **EZ DUTE EGIN**

Teknologia berriez baliatuta, laguntza eta medikuntza iraunkorrak garatuko ditugu hirugarren adinekoentzat, gaixotasun kronikoak dituztenentzat eta mendekotasuna duten pertsonentzat. **EZ DUTE EGIN**

Hiriko erakunde sanitarioekin eta ikastetxeekin akordioak lortzen arituko gara: bereziki mendekotasuna duten pertsoneri eta minusbaliatuei etxeko laguntza emateko ekintza adostuen protokoloak ezartzeko, babesgabetasun edo tratu txarren egoeretan modu eraginkorrean jarduteko eta gizarte larrialdietako egoerak konpontzeko. **LEHENDIK DATOR**

65 urtetik gorako adinekoek etxebizitzetan dituzten beharrianen mapa egingo dugu. **BAI, EGIN DUTE**

Adineko pertsonen euren etxebizitzetan ahalik eta denbora gehien egotera bideratutako plana jorratuko dugu. Hala, bide batez, enplegua sustatzeko plana sustatuko dugu. **EZ DUTE EGIN**

Aukera abegitsuak, atseginak eta eskuragarriak emango ditugu egoera fisiko gogotsuan egoteko; besteak beste, pasealeku seguruak eta aire zabalean gimnasia egiteko lekuak. Horretarako, gaur egungoak mantendu, eta hiriko beste leku batzuetara zabaltzeko plana egingo dugu, komun publikoak eta eserlekuak barne. Esate baterako, Arrobitxulo parkean. **LEHENDIK DATOR**

Esperientzia pilotu bat martxan jarriko dugu inguru sozial edo familiarrik ez duten adineko pertsonentzat. Hala, komunikatzeko baliabide teknikoak jarriko zaizkie eskura. Donostiako Sustapenarekin lankidetzan arituko gara ekimenean merkataritza (saltoki lagunkoiak) eta gertuko beste zerbitzu batzuk sartzeko. **EZ DUTE EGIN**

Adineko emakumeek bizitza sozialean parte hartzea bultzatzen duten ekintzak sustatuko dira. Helburua da emakumeen parte-hartzean dauden ezberdintasunak murriztea. **EZ DUTE EGIN**

Gizarte-zerbitzuetako langileei prestakuntza emango diegu bakardadean eta gizartean isolatuta egoteko arriskuan dauden pertsonak identifikatzeko. **BAI, EGIN DUTE**

Loiolako Erriberako Gizarte Zerbitzuen Zentro berria martxan jarriko dugu (2016). **LEHENDIK DATOR**

Morlans Gizarte Zerbitzuaren Zentro berria martxan jarriko dugu (2017. urte amaieran). **LEHENDIK DATOR**

Groseko, Egiako, Altzako eta Alde Zaharreko Gizarte Zerbitzuen Zentroen kokaleku egokia bilatuko da (legealdi osoan). **EZ DUTE EGIN**

Donostiarren eskariak bideratuko ditugu. Zenbait laguntzaren izapideak arinduko ditugu. Gizarte Ekintzan lehiatila bakarra lortzen ahaleginduko gara. **EZ DUTE EGIN**

Gizarte Ekintza sailaren webgunea eguneratuko dugu, bertatik izapideak egiteko aukera ere gaineratuta. **EZ DUTE EGIN**

Hirugarren sektorearekin zeharkako oinarrizko udal akordioa ezarriko dugu gizarte-zerbitzuetako langileen eta hirugarren sektoreko erakundeetako langileen arteko harremanak sistematizatzeko. **EZ DUTE EGIN**

Departamenturako lan-poltsa espezifikoak egingo ditugu. **BAI, EGIN DUTE (ABIAN)**

VI. Kirola, Gazteria, Hiri Segurtasuna eta Herri Babesa

Kirola

-Donostiako klub garrantzitsuenen elkarlana sustatzea, irizpide zabal eta argiak ezartzeko eta pausoak seinalatzeko, bai kudeaketari dagokionez, bai aurrekontuen lehentasunari dagokionez, bai eta hiriko kirol sistemaren funtzionamendu egokia bermatzeko elkarteek behar dituzten eta eskatzen dituzten inbertsioei dagokienez ere. Hiriko Kontseilu Lokala sortuko da. **EZ DUTE EGIN**

-Kudeaketa publiko-pribatuaren estrategia berrezartzea. **EZ DUTE EGIN**

-Kirolarekin zerikusia duen guztiaren mesedetan, babesletza bilatzen eta erdiesten lagunduko diogu sektoreari, eta lankidetzeta-hitzarmenen bidez indartzen ahaleginduko gara. **EZ DUTE EGIN**

-Udal-kiroldegien kudeaketa-eredua aztertuko da. **EZ DUTE EGIN**

-Elkarte-pribatuekin kudeaketa-eredua adostutakoan, udal-kiroldegien barne-kudeaketari ekingo diogu.). **LEHENDIK DATOR**

-Uneko kirol-instalazioei dagokienez, udal-gobernuak lehentasun gisa ezarriko du berauen mantentze- eta eraberritze-lanekin jarraitzea, Donostiako auzokideen beharrez eta eskakizunetara egokituz.). **LEHENDIK DATOR**

-Carmelo Balda pilotalekuaren hobekuntza-lanak egiteko konpromisoa hartuko dugu.). **LEHENDIK DATOR**

-Altzako auzokideen beharrezko izapideak egiten ari dira egungo kiroldegia eraitsi eta berri bat eraikitzeko.). **LEHENDIK DATOR**

-Ibaialde zentroaren garapena ere, Loiolako Erriberen inguruan, aztertzen ari gara.). **LEHENDIK DATOR- EZ DUTE EGIN**

-Kirol ekitaldiak egiten jarraitzea eta instalazio eta espazioak orotarioko ekitaldiak egiteko erabiltzea, hala nola, musik ekitaldietarako, xedaturiko beste helburu bat da. Horretarako, udal-gobernuak ondokoak egiten jarraitzearen aldeko apustua egiten du: Donostiako Klasikoa, Euskadiko 4 Orduak, Behobia-Donostia, Maratoia, 15 kilometroak, Katxalin lasterketa, Donosti Cup, eskubalo superkopako finala edo eskubaloi erregia kopako finala.). **LEHENDIK DATOR**

-Udazken honetan, World Padel Tour bezalako ekitaldi bat lehendabizikoz Donostian gauzatzeko apustua egin dugu. **BAI, EGIN DUTE**

- Udal-gobernuak apustu garbia egiten du arraunaren edo surfaren moduko kirolen alde. Horretarako, Donostiarra traineruari laguntza ematen jarraituko dugu ACT Ligara heltzeko helburua lor dezan, eta surfaren praktika sustatuko dugu, adin talde handi batek gero eta gehiago eskatzen duen kirol-jarduera baita. Azken horretarako, ezinbestekoa izango da hondartzetako erabiltzaile ezberdinen bizikidetzakudeatzea eta instalazio teknikoki aurreratuak sustatzea. **LEHENDIK DATOR**

-Mugiment 2013-2020 proiektua, hiritarren gelditasunaren ehunekoa murriztea helburu izanik, udal-gobernuak Eusko Jaurlaritzarekin batera garatu nahi dituen jarduera fisikoa eta osasungarria sustatzeko tresnetako bat da. Proiektua osasunera, aisira eta kirolera dago bideraturik eta ez du adinaren kausaz diskriminatzen. Horretarako, kanpoko kirola sustatuko da oinezkoentzako zirkuitu eta ibilbideak sortuz, era berean korrikalarien beharrak kontuan hartuz. **LEHENDIK DATOR**

-65 urtetik gorako pertsonei bideratutako ekintzak zehaztuko dira, adibidez +65 txartela darabilten pertsonentzako neurriak hartuz eta zerbitzuak zainduz. Txartel horren erabileraren bitartez, puntuak metatuko dituzte kultur eta kirol ekitaldietan deskontuak lortu ahal izateko. Ildo horretan, Arrobitxulo parkearen proiektua hezurmamitzea, eta bai bere mantentzea ere, hirugarren adinekoek kanpoan kirola eta jarduera osasungarriak egitera dago bideratuta, hain zuzen. **LEHENDIK DATOR**

-Eskolaz kanpoko ekintzetan kirol-jardueraren presentzia handiagoa izateko ahaleginak egingo ditugu, neurri handi batean pilota sustatuz, baina baita hockeya, sofbola, errugbia, igeriketa, atletismoa, futbola eta saskibaloia ere. **LEHENDIK DATOR**

-Eskola Kirola programarekin jarraituko dugu. Lehen hezkuntzako 3. eta 6. mailen artean matrikulatutako ikasleen % 70ek baino gehiagok antolatzen diren lehiaketetan parte hartzea suposatzen du programa honek eta, lehen hezkuntzako 3. eta 4. mailen kasuan, hiruhileko bakoitzean kirol modalitate ezberdin bat burutzeko aukera ematen du, modalitate bakoitzeko partidu guztiak kiroldegi edo udal-zelai bakarrean bilduz, esaterako: saskibaloia Altzan, eskubaloia Egian eta Bidebietan, eta boleibola Pío Barojan. **LEHENDIK DATOR**

-Euskara sustatzen jarraitzeko, eskolaz kanpoko ekintzak zuzentzen dituzten monitoreek euskaraz jakin eta egin dezaten lan egingo dugu. **BAI, EGIN DUTE**

-Euskararen sustapena kirolean erreferenteak diren pertsonekin egindako eta kirolariei zuzendutako publizitate kanpainen bidez egingo dugu. **EZ DUTE EGIN**

-Kirol Txartel bateratu baten erdiespena bultzatuko dugu. Horretarako, egun beren txartela eskaintzen duten hiriko klub ezberdinekin lehen kontaktuak izaten ari gara. **EZ DUTE EGIN**

-Berdintasunaren sustapenari eta emakumearekiko diskriminazio positiboari dagokionez, neurriak hartzen ari gara futboleant, baita hondartza-futboleant ere; saskibaloiant, ahaleginak egiten ari gara federazioei jarduera eta lehiaketa mistoak eta emakumezkoenak soilik antolatzeko konpromisoa harrarazteko; eta arraunketan, nesken presentzia estropadetan errealitate bat da dagoeneko. Gainera, instalazioen kudeaketari dagokionez, emakumeak hartzen dituzten elkarteak puntuen bitartez saritzen ari gara. Intxaurdi futbol-kluba horren adibide ona da; emakumez bakarrik osaturik egonda, César Benito futbol-zelaia kudeatuko du zeharka. **LEHENDIK DATOR**

Gazteria

Espezializazioa:

-Haurtzarora (0-12 urte): 0 eta 5 urte bitarteko umeei zuzendutako zerbitzuaren inguruko hausnarketa (Haurguneak). Gurasoek eskatutako espazio bat da, beren beharrezaneiei egokitutako ingurune batean seme-alabekin egon ahal izan daitezen. Gainera, Haurtxokoen Sarea osatzeko ahalbidea aztertuko da; Larratxon badago zentro bat, eta beste toki batzuetarako oinarriak finkatuko dira. **LEHENDIK DATOR**

-Nerabezarora (13-17 urte): Gaztelekuen Sarea osatzeko ahalbidea aztertuko da. Kasu honetan ere, Larratxon badago zentro bat, eta beste toki batzuetarako oinarriak finkatuko dira. Trebakuntza-ikastaroak eskaintzeko eta gurasoei, tutoreei, hezitzaileei, eta abarrei bideratutako aholkularitza emateko guraso-eskolak. **LEHENDIK DATOR**

-Gaztarora (18-30 urte): Gazteriaren beharrezanek asetzeko politikak, jarduerak eta programak diseinatzea. Garrantzi handia ematen diogu biztanleriaren sektore horri, izan ere, biziara honetan bizi-proiektu bat zehaztuz eta garatuz doa eta burujabetze-prozesu ahalbidetzen da. **LEHENDIK DATOR**

Ikusgaitasuna, komunikazioa eta informazioa:

-Kalean bertan espazio bat irekitzea, biztanleriaren sektore hori azken helburutzat duten politika eta zerbitzuak biltzeko. Horretarako eta bikoiztasunak ekiditeko, beste erakunde batzuen partaidetza sustatuko da: Unibertsitateak, Foru Aldundia, Euskadiko Gazteriaren Kontseilua, Eusko Jaurlaritza. Hala, administrazioaren eta gazteen arteko erlazioa sustatuko da (txartelak, bekak, lan eskaintzak, boluntarioritza, bidaiak, izen-emateak, trukeak, lankidetzak, erakusketak, gaikako hitzaldiak, etab.). **EZ DUTE EGIN**

-Erakundeek eskuragarri dituzten baliabideak ezagutaraztea, Udalaren kanpo-komunikazioa hobetuz.

LEHENDIK DATOR

-Aldundiarekin eta Eusko Jaurlaritzarekin gazteriari bideratutako programak koordinatzea, bikoizketak ekiditeko informazio-buletinetan, programetan, jardueretan, etab. **EZ DUTE EGIN (EZ DA ORAINDIK EZER ONARTU)**

-Gazteekin komunikazioa ezartzeko orduan, teknologiaren aldeko apustua egitea. **LEHENDIK DATOR**

Hiri hezitzailea, irekia eta gozamenezkoa:

-Beste udal-departamentu batzuekin elkarlanean, opor-sasoiarako aisialdi- eskaintza ordenatzea, adibidez Gabonetakoa (Gabonetako Haur Parkea), Aste Santukoa edota udakoa. **EZ DUTE EGIN**

-Programa berriei ekitea, hala nola: Street Artaren aldeko Ituna (graffitiak), Gazte Kulturaren Jaialdia, GazteFest (hiriko jaialdietan gazteentzako prezioen politika). **EZ DUTE EGIN**

-Bizi ohitura osasungarriak sustatzea, bereziki ohitura ez-sedentarioak, ikastetxeak Mugimint 2013-2020 programan partaide eginez. **EZ DUTE EGIN**

-Biztanleria gazteenaren aldeko apustua egitea euskararen erabilera sustatzeko eta zabaltzeko.

LEHENDIK DATOR

-Gazteriaren erreferente diren pertsonak euskararen kanpaina dibulgatzaileetan inplikatzeko, donostiarren sektore honengana iritsi gaitzen eta gazteak identifikaturik senti daitezkeen. **EZ DUTE EGIN**

-Balio etikoetan kontzientziatzea eta heztera bideratutako kanpainak sortzea: sexu-aniztasuna, genero-berdintasuna, etnia-aniztasuna, errealitate ezberdinak... **LEHENDIK DATOR**

-Nagusiekiko errespetua sustatzeko, belaunaldien arteko programak abian jartzea. **EZ DUTE EGIN**

-Gizabidearen arloan erreferente izateko eta gazteria boluntariorik partaide egiteko, Auzolan proiektua sustatzea. Gobernutik gazteengana iritsi nahi dugu; gizabidezko eta donostiar begirunetsu izanik, gure ustea da zerbitzu eta arreta hobekiak lortuko ditugula eta, horretarako, gazteria erreferente garrantzitsua dela iruditzen zaigu. **EZ DUTE EGIN**

-Skatean aritzeko espaziorik ez duten auzoetan halakoak gaitzeko toki egokiak aztertzea, eta horrela gazteen sektorearen eskakizun bati erantzuna ematea. **EZ DUTE EGIN**

Aukerak sortzen dituen hiria:

-Unibertsitateekin lan egitea, hitzarmenak adosteko eta horrela ikasleek hiriarekin zerikusia duten arloetan beren Gradu Amaierako Lanak egin ahal izan ditzaten. Horri esker, hiriaren arazoei irtenbidea emateko gazteriaren ikuspegi berritzailea izango dugu. **EZ DUTE EGIN**

-Egiazko gai edo arazoak mahaigaineratzeko programak abiaraztea, gazteek erantzunak eman ditzaten eta onena hauta dezagun, «konponbide onenaren gazte saria» sortuz. Horrela, “learning by doing” metodologiak sustatu nahi dira. **EZ DUTE EGIN**

-Praktikak egitea erraztea, bai Udalean, bai haren menpeko erakundeetan, gaitasunen trebakuntza errazteko. **LEHENDIK DATOR**

-Sustapen Departamentutik, Eusko Jaurlaritzak donostiarrentzat aurkezten dituen nazioartekotze bekak, Global Training bekak eta antzekoak babesten eta kudeatzen jarraitzea. **LEHENDIK DATOR**

-Atzerriarekin geldituz, hizkuntza-truke edo -praktikak non egiten diren erakutsiko duen sare edo plataforma baten sorkuntzari bidea ematea. **EZ DUTE EGIN**

-«Enpresa-gizartea-unibertsitatea» topaketak sustatzea, kudeaketa-ereduak gaindituz eta hiriko lau campusen arteko lankidetzak indartuz. **EZ DUTE EGIN**

-Hiriko gazteentzako lan esperientziak bultzatzea, hiriko klusterrak osatzen dituzten enprekin bitartekari-lanak eginez (energia berriztagarriak eta energia eraginkortasuna, laguntza konponbideak, surfa, sormenezko industriak eta industria kulturalak, nekazaritzako elikagaiak eta merkataritza). **LEHENDIK DATOR**

-Enpresa-proiektuak dituzten gazteen elkarketa eta sareak sustatzea, elkarlanaren ekonomia, topaguneak eta gazteen enpresa-proiektuen elkartzea bultzatzeko. **EZ DUTE EGIN**

-Enpresa-proiektu gazteentzako gune berriak sortzea (coworking, enpresa sehaskak) hiri erdialdeko ingurunean. **EZ DUTE EGIN**

-Proiektu edo jarduera bat martxan jarri nahi duten pertsona guztientzako aholkulari-sare baten sorkuntza sustatzea. **EZ DUTE EGIN**

-Crowdfunding plataforma bat egitearen ahalbidea aztertzea ezagutza sortzeko eta Donostian abian jarri nahi diren proiektuei laguntza emateko. Hala, ordezkotza finantzamendua bilatu ahal izango da. **EZ DUTE EGIN**

-Ekintzaile izatearen balioa eta ematen dituen aukerak sustatzea. Ekintzaileizatearen kontzeptua duin bihurtzea eta proiektuen sorkuntzan konfiantza helaraztea. **LEHENDIK DATOR**

-Hiriak dituen senidetzea bere osotasunean bultzatzea. **LEHENDIK DATOR**

-Lapurdiko hiriekin gazteriaren arloko lankidetzeta-hitzarmenak sinatzea. **EZ DUTE EGIN**

Gazteri gogotsua:

Partaidetza-formula egonkor eta eraginkorrak bilatzeko lan egingo dugu. Gazteen partaidetza arlo guztietan sustatu nahi dugu. **EZ DUTE EGIN**

Gazte Lokalak:

Aisialdiko jarduerak eta jarduera ludikoak gauzatzeko balio duten bilera eta topaketa gune pribatuak dira. Fenomeno gainerakorra da, eta Gazteria Departamentuak, beste sail batzuekin batera, hausnarketa egiten jarraitu behar du bereziki gazteen eta administrazioaren arteko harremanak errazteko, eta beren autonomia pertsonalerako pausoak eman ditzaten lan egiten. Era berean, komenigarri deritzogu dauden gazte elkarten egoera analizatzea eta beren beharrianak identifikatzea, espazio fisikoari dagozkionak batez ere. **LEHENDIK DATOR**

Etengabeko Hobekuntza:

-«Gazteriaren behatokia» sortzeko ahalbidea aztertu. **EZ DUTE EGIN**

-Udaleko Gazteria Departamentuaren, Foru Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzaren arteko lankidetzeta-plan edo -hitzarmen bat bultzatuko dugu, jarraibideak eta aurre egiteko erronkak zehaztuko dituen gazteria-plan bat diseinatu ahal izateko. **EZ DUTE EGIN**

-Legealdia bukatu baino lehen gazte politiken inguruko estatu edo Europa mailako kongresu bat antolatu nahi dugu gure hirian. **EZ DUTE EGIN**

Herri Segurtasuna

- Lan koordinatuaren bidez, gainera, kriminalitate mapak sortuko ditugu eta hiriko puntu beltzak identifikatuko ditugu; horrez gain, etxebizitzetako eta garajeetako lapurreten aurkako plan bateratu bat abiaraziko dugu. Lan koordinatuari esker, bi polizia-zerbitzuek bildutako informazioa antzeman

eta partekatu ahal izango da, eta hiriaren errealitatea doitasunez ezagutarazteko bilerak egingo dira. Hala, zerbitzu bien baliabideak eskura jarriko dira eraginkorragoak izan daitezen. **EZ DUTE EGIN**

-Elkarlan hau, era berean, antolaketa-eredua aldatzeko eta lan eta funtzionamendu koordinatuaren egitura lortzeko dago eraturik. Horrekin, antolaketa-eredu integratua ezarri nahi dugu, Donostiako bizilagunen eta gurera bisitan datozen guztien zerbitzura egongo den polizia integratu bat – Udaltzaingoa eta Ertzaintza– bermatzeko. **BAI, EGIN DUTE**

-Segurtasunaren arloan eta beste arlo jakin batzuetan gauzatuko dugun elkarlana beste udal-departamentu batzuekin batera antolatuko dugu. Ondoko protokoloak idatziko ditugu:

-Genero indarkeriaren biktimentzako esku-hartze eta arreta protokoloa, Emakume Departamentuarekin batera. **EZ DUTE EGIN**

-Tratu txarrak eta bestelako arazoak tratatzeko Gizarte Ongizarte Departamentuaren gizarte-programen elkarlan-protokoloa. **EZ DUTE EGIN**

-Udaltzaingoaren eta auzokideen arteko harreman-sistemak ezartzeko Auzoen Departamentuarekin baterako elkarlan-protokoloa, zarata eta bestelako arazoak detektatzeko asmoz. Bitartean, kaleetan poliziaren presentzia indartzen eta bermatzen jarraituko dugu, guztia ere Ertzaintzarekin elkarlanean. Zehazkiago, Loiolako Erriberetan, Intxaurren eta Aieten beren presentzia indartuko dugu. **EZ DUTE EGIN**

-Pertsona asko elkartzen dituzten kirol- eta kultur-ekitaldietan, elkarlanean arituko gara Mugikortasun Departamentua, Osakidetza, DYA, Dbus, Suhiltzaileak, Ertzaintza, eta abar, guztia ere segurtasuna eta hiriko zerbitzuen funtzionamendu egokia bermatzeko. **LEHENDIK DATOR**

-2016k baterako ekintza-planak eta ohiz kanpoko neurriak behar izango ditu. **LEHENDIK DATOR**

- Eman behar duen zerbitzuaren mailako instalazioez hornitu behar dugu Udaltzaingoa, bai eta bete nahi ditugun beharrezko mailakoak ere. Horretarako, Morlaneko udal-instalazioak osatu egingo ditugu, Udaltzaingoaren egoitza berria izan daitezen eta jatorrizko proiektuak ez zituen beharrezko instalazio eta zerbitzuak izan ditzan. **LEHENDIK DATOR**

- Hiriko arrisku handieneko inguruetakoko bidezaintza sistemen hobekuntza, eta bereziki genero-indarkeriaren arriskua dagoen tokietan. **EZ DUTE EGIN**

- Agenteen bitartez, gizalegea bermatuko dugu toki publikoetan, zaintza indartuz eta polizia gehiagoren presentziarekin gizalege ordenantzak betearaziz. **LEHENDIK DATOR**

-Donostian tamaina handiko ekitaldiak antolatzen diren bakoitzean segurtasuna bermatzeko larrialdi plan desberdinak egiteko biziki ari gara lanean, horretarako ekintza plana babestuko duten protokoloak ezarriz. **LEHENDIK DATOR**

-2016ko Kultur Hiriburutzari begira, egintza eta ekitaldi ugari egingo direnez, nahasirik dauden sailekin koordinatu gara (2016 Fundazioa, mugikortasuna, hiriaren mantentzea...), plan eta protokoloak prestatzeko. Hala, larrialdietarako sistema eraginkorra bermatuko dugu, badaezpada antolatutako ekitaldiak burutzean jazoera edo arazorik badago ere. **LEHENDIK DATOR**

-Ekaitzak, suteak, uholdeak, eta abar gertatzen direnean sortzen diren larrialdiei edo krisi egoerei aurre egiteko, babes zibilaren zerbitzua baliabide tekniko aurreratuak dituen kamioi batez hornitu dugu, beste batzuen artean, krisi gela gisa eta egoera hauetan ekintzak koordinatzeko erabili ahal izan dadin. **LEHENDIK DATOR**

VII. Sustapen Ekonomikoa, Merkataritza, Ostalaritza eta Turismoa

-Gobernuaren konpromisoa da udal-egitura hornitzea lokalak irekitzeko eta etxebizitzetan obrak gauzatzeko jarduera-lizentzien izapideak arintzeko beharrezkoak diren antolaketa baliabideez. Hala, behin behar bezala beteta, ez badira bi hilean onartzen, eskatzaileek % 50eko beherapena edukiko dute lizentzian, eta udal-baimena hiru hilabete baino luzatzen bada, ordaintzetik libre geratuko dira. Ildo beretik, irizpide malguak aplikatuko dira berritze-lan txikiak baimentzeko orduan, eta ahalegina egingo da hilabeteko epean baimena eduki dezaten. Modu horretan, merkataritza- eta ostalaritza-lokalak modernizatzea errazagoa izango da. **EZ DUTE EGIN**

-Papineko industrialderako sarbidea hobetuko dugu, eta ondoren Martuteneko 27. industrialdeko eta Zuatuko zerbitzuak modernizatzeari eta hobetzeari helduko diogu. Miramon marka indartuko dugu, bai eta bere prestigioa Gipuzkoako Zientzia eta Teknologia Parke gisa, bere lurralde-hedapena hobetzeko eta enpresa berriak erakartzeko helburuz eta erreferentzia-puntua izan dadin berrikuntza eta ikerketa biomedikuaren erakargune gisa. **EZ DUTE EGIN**

-Smart City. Donostia hiri adimendunaren proiektuaren programa bateko liderra izango da, Florentzia eta Bristolekin batera: Smart Donostia planaren mugarri nagusia Urumea Riverside Barrutia izango da. Proiektu horrek Martutene eta Txomin auzoak izango ditu kokaleku, bai eta Ametzagaina eta 27. industrialdea ere, hainbat alderditan banatuta: bata energiari lotutakoa, etxebizitzaren berritze-energetikoa egiteko proiektu baten bitartez; beste alderdi bat mugikortasunari lotutakoa izango da, eremu horretako mugikortasun elektrikoa bultzatuz, autobus eta auto elektrikoak eta birkargaguneak eranstearen bidez. **LEHENDIK DATOR**

Donostia beti egon da modari eta diseinuari lotuta, eta asko dira beren bidea gure hirian hasi zuten lehen mailako enpresak eta moda-sortzaileak; horien ordezkioak dira aurrera egiten saiatzen ari diren diseinatzaileen belaunaldi gazteak. Donostiako Modaren Klusterra sortu dugu, sektore horren ahalmen ekonomikoan sinesten dugulako gazteentzako enplegua sortzeko bide gisa, bai eta etorkizunean hiri ekintzaile, gazte eta sortzaile baten marka izan daitekeen apustu gisa ere. Horretarako beharrezkoa da merkataritza-guneak bultzatzea, diseinuari eta modari lotutako enpresa-proiektu berritzaileen bidez. **BAI, EGIN DUTE**

Gobernu-ekintza horiekin ekintzaile izatearen balioa sustatu nahi da, gazteen prestigio soziala bultzatu, horiek ekintzailetzari lotuta eta proiektu berriak sortzeari konfiantza transmitituta. **EZ DUTE EGIN**

Probetxua atera behar diogu donostiarrek munduari ekar diezaioketen talentuaren, ezagutzaren eta esperientziaren aberastasunari. Nazioartekotzea. Hiriaren alde lan egiten duten munduan zeharreko donostiarren sare bat sortuko dugu, gure hiriaren preskriptore eta enbaxadore gisa. IKTak erabiltzea Donostian aplika daitezkeen proiektuetarako eta ekimenetarako proposamenak eta iradokizunak jasotzeko eta partekatzeko, gure hiriari dinamismo ekonomiko eta sozial handiagoa eta bertan bizi diren pertsonen aukerak emateko helburuz. **BAI, EGIN DUTE**

Aukeraz beteriko hiri honek gazte donostiarren espezializazioa eta prestakuntza sustatzen du. Horretarako, espezifikoki prestakuntzara bideratutako programak adosten dira unibertsitateekin eta goi-mailako ikastegiekin, lan-mundura sartzera errazagoa izan dadin. Ildo beretik, beharrekoa da ere hiriko gazteentzako lan-esperientziak sustatzea, bertako klusterrak osatzen dituzten enpresekin bitartekaritza-lana eginez. **EZ DUTE EGIN**

Gure enpresak nazioartekotzea bultzatuko dugu, kanpoko merkatuetara iristeko elkartzea erraztuz eta komunikazio-azpiegitura aurreratuen hedapena sustatuz hirian zehar. Diru-laguntzen bitartez hiriko merkataritza “on line” izatea eta “on line” saltzea bultzatuko da, bai eta kudeaketa hori modernizatzea ere. **EZ DUTE EGIN**

Donostiaren Aldeko Hitzarmenean lehen mailako helburutzat planteatzen diren neurri horiek guztiak osagarriak dira, eta lan-munduan sartzeko mesedegarriak izango dira, bi ikuspegitatik: bata auto-enpleguaren bidez eta bestea kontratazioa sustatuz. **LEHENDIK DATOR**

Hori dela eta merezi du alderdirik sozialena azpimarratzea, izan ere, politika horiek guztiak nagusiki kalitatezko enpleguak lortzera zuzenduta daude, eta bereziki sektorerik ahulenak nabarmentzen dituzte, hau da, luzaroko langabeena, 45 urtetik gorako pertsonena, emakumeena eta gazteena.

LEHENDIK DATOR

Sektore horien artean dago 45 urtetik gorakoena, pertsona horiek baitira, behin lana galduta, beste lan bat lortzeko aukera gutxien dituztenak. Horretarako, sektore horretako enplegua aktibatzeke programa espezifikoa abiaraziko da, udal-erakundeek zeharka antolatua, eta obra- eta zerbitzu-kontratazio administratiboetarako baldintza-pleguetan erantsiko da, edo Udalak gauzatzen dituen kontzesioetan edota bestelako kontratu publikoetan; pertsona-talde horren kontratazioari mesede egingo dioten klausula sozialetan, azken batean. **EZ DUTE EGIN**

Merkataritzaren hirian, lehentasuna izango da merkataritzan gehien degradatutako eremuak berpiztea ere bai. Horretarako, enpresa-proiektu berrietarako espazioak sortuko dira (Coworking, inkubagailuak). Neurri horiek, era berean, hirigune zentraletan aplikatuko dira, edota erabili gabeko lokal publikoetan, edo pribatuetan, horiek alokatzeko arazoak egonez gero. **EZ DUTE EGIN**

Lokal hutsen errolda bat eratuko da, eta kaleak hautatuko dira lokalok suspertzeko eta dinamizatzeko proiektuak ezartzeko. **EZ DUTE EGIN**

Espiritu ekintzaile horren amaiera gisa «Donostiako Hiria» saria sortuko da, urteko ekimen berritailerik onena saritzeko **BAI, EGIN DUTE**

Udalaren jabetzako merkataritza-guneak dinamizatzeko edo beren funtzionamendu onari eusteko formulak berrikustea, hala nola Arcco Amara, San Martin eta Bretxa. **EZ DUTE EGIN**

Ostalaritzak eta merkataritzak BPGren % 25 osatzen dute, eta datu hori berme paregabea da Ekonomia Bultzatzeko, Merkataritzako, Ostalaritzako eta Turismoko Ordezkaritza espezifikoen barruan zerbitzuen eta merkataritzaren sektorearen alde ziurtasunez apustu egiten jarraitzeko, Donostiako hurbileko eta hiri-markako ostalaritzaren eta merkataritzaren aldeko neurriak bultzatuz, auzune guztietan. **EZ DUTE EGIN**

Kalitatezko gau-aisia sustatu behar dugu, gure hiriko ingurumena eta bizilagunen bizikaltatea errespetatzen duena eta hainbat publikori eta ekonomiari erantzuna emateko gai dena. Bizitegiz besterako eraikinak ezartzeko eredu donostiarrarekin bat datorren gau-aisia, hiriko kanpoaldean gau-aisiako establezimenduak kontzentratzea saihesten saiatzen den eredu. Ostalaritza-jarduera bultzatuko dugu Boulevardetik eta Alde Zaharretik harago. **EZ DUTE EGIN**

Terrazen ordenantza hobetuko da, zentzuzkoagoa izateko eta hiri turistiko honetako beharrei eta eskaerei moldatzeko, dimentsioei eta ordutegiei dagokienez, izan ere, Donostia gai da kalitatea eta jardunbide egokiak konbinatzeko eta gizabidea eta auzokoen atsedenarekiko errespetua uztartzeko. **EZ DUTE EGIN**

Hiriaren ahalmen turistiko guztia dagoeneko saturatuta dauden eremu jakinetan ez kontzentratzeko, interes turistikoa hiri osoan zehar indartzen eta hedatzen duten jardunbideak azpimarratuko dira. **EZ DUTE EGIN**

Alde horretatik, Aiete auzoko eta Katxola baserriko jarduera sustatu beharra dugu, inguruko beste erakundeekiko lankidetzarako hitzarmenak azpimarratuz, hala nola Miramon Teknologia Parkea eta Basque Culinary Center erakundeekin edota Pagolan merkataritza- eta ostalaritza-establezimenduak irekitzeari bide emanez. **EZ DUTE EGIN**

Amara Zaharrean, neurriak hartu behar dira ostalaritza-establezimendu jakin batzuek eragindako zarata murrizteko, sensibilizazioa nahiz kontrola bide izanik, bai eta eremu garaietako garraio bertikala hobetzeko. **EZ DUTE EGIN**

Amara Berrin, pertsonentzako espazio adiskidetsuagoetarako bidea eman beharra dago, barneko espazioak eta plazak hobetzearen bitartez. Baina, batez ere, nahitaezkoa da ekintza horiek hiriko auzunerik jendetsuenaren birsortze integralaren abiapuntua izatea. **BAI, EGIN DUTE**

Antiguo auzoan hiri-ekipamendua eta oinezkoentzako erabilgarritasuna hobetu beharra dago, merkataritzaren garapena errazte aldera. **BAI, EGIN DUTE**

Egian, hurbileko merkataritza sustatzea eta merkataritza-jarduera berrien sorrera bultzatzea, bai eta iriste-erraztasuna eta garraio bertikala hobetzea ere, Tabakalerako jardueraz baliatuta. **EZ DUTE EGIN**

Ibaetan hirigintza-ordenantzak malgutu nahi ditugu, Igara espazio misto bihurtzeko helburuz, eta ekonomiaren jarduera lehenesten den arren, ahal den heinean bizilekuena garatzeko. **EZ DUTE EGIN**

Donostiako alde zaharra gure hiriko ostalaritzaren motorra da, eta, horregatik eta bere kokaleku estrategiko eta bereziarengatik, beharrezkoa da lan-mahai edo lan-talde bat eratzea, auzirik garrantzitsuenen segimendua egite aldera: ordutegiak, zaratak, hondakin-bilketa, kaleen garbiketa, zamalanak, espazio publikoaren erabilera komuna eta abar. **BAI, EGIN DUTE**

Horri dagokionez, garrantzitsua da ostalaritza-lokalak modernizatzeko lanak bultzatzea, beste zerbitzuen artean hala desio duten establezimenduei oinarrizko aholkularitza ematen dioten berritzelanen dinamizatzaileen figuraren bidez. **EZ DUTE EGIN**

Turismo-bulegoa Udaletxera eramango dugu, gehienez 2 urteko epean. Bulego berri hori integrala izango da, modernoa eta XXI. mendeko turismo-eskaintzan puntakoa izan nahi duen hiri baten gisakoa. **BAI, EGIN DUTE (ABIAN)**

VIII. Hirigintza Sostengarria eta Hiri Proiektuak

- Gure hiriaren bereizgarri diren elementu naturalak babestuko ditugu, lurzoru urbanizagarrian aurreikusitako jardueri baino hiri-lurzoruan aurreikusitakoei lehentasuna emango diegu, eta plangintzan erabilera mistoko hirigintza-irizpideak aplikatuko ditugu. Horrez gain, jarduera ekonomikoetara (hirugarren sektorea eta bestelakoak) bideratutako espazio eraikiak etxebizitza bilakatzeko eraldaketa kontrolatua erraztuko dugu, eta hirigintza-araudia malgutuko dugu, bizitegiz besterako higiezin erabilera aldatzeko. **EZ DUTE EGIN**

- Eraikinen Ikuskaritza Teknikoaren ondoren egin beharreko eraldaketetarako etxebizitzak birgaitzeko laguntzak eta/edo diru-laguntzak berrikusi eta egokituko ditugu, bai eta isolamendu termikoa eta energia-eraginkortasuna hobetzeko eraikinetan egin beharreko lanetarako diru-laguntzak ere. Dirulaguntzen esparru honen barruan, «etxe pasibo» kontzeptuko etxeak eraikitze aukera aztertuko dugu. **EZ DUTE EGIN**

-Etxegintzan, zerbitzu bat abiaraziko dugu auzotarrek etxebizitzak trukatu ahal izan ditzaten; hartara, etxebizitzaren irisgarritasun eta tamainarekin lotutako arazoak konponduko ditugu. Funtsean, adineko pertsonen zuzenduko zaie zerbitzua, bizi diren inguruaren deslokalizazioa saiheste aldera. Udaldepartamentu honen beste helburu bat Alokabide programarako etxebizitza gehiago antzematea izango da. Udal alokairu-etxebizitzan mugikortasuna erraztuko dugu. Eta etxebizitzak birdimentsionatuko ditugu, uneko familien beharrei behar bezala erantzuteko. **EZ DUTE EGIN**

-Araudi bat egingo dugu alokairu-etxebizitzaren eskatzaileen zerrenda bakarra zehazteko; hala, alokairu-etxebizitza publiko batean bizi direnek lehentasuna izango dute azalera-eskubideko etxebizitza bat eskuratzeko. Hori horrela, jabetzako etxebizitza bat esleitzeak alokairuko bat libratuko duenez, alokairu-etxebizitzek mugikortasun handiagoa izango dute. Zerbitzu berri bat sortuko dugu Etxegintzan, babes ofizialeko etxebizitzak, etxebizitza tasatuak eta etxebizitza libreak kooperatiben sistemaren bitartez sustatu eta eraikitzea orientatu eta kudeatzeko **EZ DUTE EGIN**

- Alokairu-errentak berraztertze sistema hobetuko dugu, eta udal-etxebizitza bat esleitu zaienak betekizunak betetzen dituzten eta denborak aurrera egin ahala betetzen jarraitzen dituzten hobeto kontrolatuko dugu. **EZ DUTE EGIN**

- Etxebizitza-proiektu zehatzei dagokienez, eraikuntza bultzatu eta sustatuko dugu, hainbat modalitate eta erregimenetan, hiriko hainbat tokitan: Ategorrietako udal-haztegi ohietan, plangintza burutuko dugu, eta gazteentzako 70 tutoretzapeko apartamentu eraikiko ditugu. **EZ DUTE EGIN**

-Atotxa-Erreka inguruan, kooperatiba-erregimeneko etxebizitzak eraikitzea sustatuko dugu, bai eta gazte eta adinekoentzako etxebizitzak ere. Horretarako Exegintzan etxebizitza kooperatiboen inguruko orientazio eta kudeaketa zerbitzu bat sortuko dugu. Udal-titulartasuneko lurzorua salmentak, hiritik hain urrun ez dauden inguruetan eraikitzeko aukeran eskeiniko du. **EZ DUTE EGIN**

- Estatuko Administrazio Orokorrarekin harremanetan egongo gara, Polizia Nazionalaren eta Udalaren etxe ohietan gazte eta adinekoentzako tutoretzapeko 150 apartamentu eraiki ahal izateko. **EZ DUTE EGIN**

- Larratxoko Irale eraikinari behin betiko konponbide bat ematea proposatuko dugu; hots, gazte eta adinekoentzako alokairu-erregimeneko apartamentuak eraikitzea. **EZ DUTE EGIN**

- Aurreikusitako etxebizitza-garapena gauzatzea bultzatuko dugu eremu hauetan: Etxegi (Goienetxe), Ilarra, Julimasene eta Jolastokieta-Pescafría. **LEHENDIK DATOR (ILARRA BERRIA DA, BAINA EZ DUTE EZER ONARTU ORAINDIK)**

- Udal-gobernuaren lehentasuna da Txomin Eneko etxebizitza-aurreikuspenak gauzatzea. Ondorioz, hasi da dagoeneko plan orokorraren unean uneko aldaketaren izapidetzea, Auzitegi Gorenaren epaian jasotakoa betetzeko, Txomin Eneako BOEn aurreikuspenei eutsita eta horiek behar bezala justifikatuta. **LEHENDIK DATOR**

Hirigintza sostengarria eta hiri proiektuak

Urumea-ardatza:

- Gipuzkoako Kosten Lurralde Zerbitzuak baimenak lortu ondoren, Martuteneraino iritsiko den ezker ibaiertzeko ibai-pasealekuaren proiektua gauzatuko dugu, Ibaialde aisia- eta arraunketa-zentroa barne, eta eskuin ibaiertzeko pasealekua egiteko lanak hasiko ditugu. Ardatz berean, Eusko Jaurlaritzako URA ur-agentziarekin dugun lankidetzaren indartuko dugu, bai eta behar diren erakunde arteko akordioak ere, ahalik eta azkarren egiteko Planean onartutako lanak. Txomin Eneko zatiari helduko diogu, bidegorriaren jarraipena barne. **LEHENDIK DATOR ETA ABIAN.**

- Foru Aldundiarekin negoziatuko dugu Artelekuren eraikinaren eta partzelaren behin betiko xedea, eta Txominen sortuko den hirigintza berrian zer-nola txertatu... **BAI, EGIN DUTE**

... bai eta zer erabilera izan ditzakeen ere (auzorako kirol- eta hiritar-zentroa, esate baterako), auzotarren eskei erantzunez. **EZ DUTE EGIN**

- Lorategi Hiriari eragiten dioten plangintzak behin betiko onartuko ditugu, eta horren garapenean egokitzapenak egingo ditugu, bere erabileraren izaera mistoan eragina izan dezaten. **LEHENDIK DATOR**

- Garapen-eremu horri dagokionez, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin harremanetan jarriko gara, Loiolako Erriberen ertzean dagoen zatian, A-8 bidezubiaren gaineko eskumena duenez, saihesbide-proiektu bat susta dezan ospitaleetako lotune berria oinarri hartuta, hori ezabatzea ekarriko duena, hirira sartzeko eta hiritik irteteko kotarako bide bat eraikita; hartara, kalitatezko eta aukeraz betetako espazio berri bilakatuko da. 2016rako, behin betiko onartuko dugu Antzieta-Sarroeta pasealekuko plangintza, bai eta hori urbanizatzen hasi ere. **EZ DUTE EGIN**

- Euskotrenen geltoki berriaren inguruaren lanen jarraipen-batzordearen barruan, behar diren akordioak egingo ditugu Eusko Jaurlaritzarekin, proiektua burutzeko eta aipatu ingurunearen hirigintza hobetzeko. **LEHENDIK DATOR**

- Urumea-ardatza hiriaren hego-ekialdean dago, eta hiria zabaltzeko espazio naturaletako bat da. Espazio horren zati handi bat Loiolako kuartelek hartzen dutenez, behar diren bilerak egingo ditugu Defentsa Ministerioarekin, gaur egun aipatu kuartelek hartzen dituzten lurzoruak berreskuratzeko akordio bat egiteko eta, hala, «Urumea XXI» proiektua abiarazteko. Proiektu hori, bada, etorkizuneko hiri-proiektu misto bat da, eta bizitokietarako nahiz jarduera ekonomikoetarako eremuak aurreikusten ditu, gazteei bideratuta. **EZ DUTE EGIN**

- Loiolako Erriberetan, urbanizatzeko dauden espazioak urbanizatuko ditugu, eta ADIFen trenbidea estaltzea bultzatuko dugu. **EZ DUTE EGIN**

Eskuzaitzeta:

- Zubietaren gainetan, Eskuzaitzetan, enpresak eta jarduera ekonomikoak instalatzeko espazio handienetako bat du hiriak. Hori horrela izanik, lurzoru publikoko industrialdea berri hori garatzea bultzatuko dugu, hala, aukera emango baitiegu enpresa eta ekintzaileei kalitatezko enplegua sortzeko, eta, gainera, hiri-bilbean dauden enpresak birkokatu ahal izango direnez, eremu horiek birsortzen lagunduko dugu. **EZ DUTE EGIN**

- Akordioak egingo ditugu Eusko Jaurlaritzarekin enpresa berriak erakartzeko, eta, horiek bertan instalatu ahala, eremuaren urbanizazioa osatzen joango gara. **EZ DUTE EGIN**

Igara-Infernua:

- Plangintza berri bat egingo dugu, jarduera ekonomikoko eta bizitokietako erabilera mistoko erabilera berriak emateko. **EZ DUTE EGIN (EZ DA EZER ONARTU ORAINDIK)**

Illarra:

- Plan Orokorra aldatuko dugu, eremu horretan gauzatu ahal izateko lurzorua optimizatzearen bidez. Hirigintza Jasangarria eta Hiri Proiektuak Gobernu Programa 83/104 **EZ DUTE EGIN (EZ DA EZER ONARTU ORAINDIK)**

Marrutxipi:

- Marrutxipin, kotxetegiaren eta Ategorrietako geralekuaren arteko espazioa egokitu beharra dago, euste-urmaeleko lanak amaitzerakoan. Dbus konpainiak zehaztu du erabiliko duen partzela zatia, beraz agintaldi honetan, libre geratuko den espazio horretarako konponbiderik onena aztertu eta gauzatu dugu, erabilera publikoa emateko asmoz. **EZ DUTE EGIN**

Tabakalera-Mundaiz:

- Tabakalerak kultur-proiektu berritzaile bat izan behar du, sortzailekomunitatea indartzeko kultur-fabrika bat, artistak zein herritarrek bilduko dituen. Azken batean, elkarren arteko kultur-jarduerarako toki bat. **LEHENDIK DATOR**

- Tabakalerak gure hiriaren erreferente berrietako bat izan behar du, kokapen estrategikoa baitu. Tabakalerak ez du soilik kulturari eta ikus-entzunezkoei lotutako proiektu bat izan behar zentzu hertsian; hiri-eraldaketa baterako kanalizatzaile eta abiapuntu izan behar du, Egia, Cristina Enea parkea, Atotxako eta Norteko tren-geltokiak, autobus geltokia eta Mundaizeko inguru narriatua bilduko dituen. **LEHENDIK DATOR**

- Abiadura Handiko Trena (AHT) gure hirirako garraio-mugarri bat izango du. Hainbat motatako azpiegiturak elkartuko direnez, beste administrazio batzuekin, batik bat ADIFekin, dagoeneko hasitako elkarrizketetan eta negoziazioetan sakondu beharrean gaude; izan ere, Atotxako uneko tren geltokia eraberritu nahi dugu, eta Tabakalerarekin eta lurpeko autobus geltoki berriarekin integratu. Proiektu paregabearen sinbiosian, esan dezakegu kulturaren geltokia izango dela; komunikazioekin lotutako hiri ingurune bat, kulturari eta sormenari ikuspegi globala ematen diona. **BAI, EGIN DUTE**

- Mundaizeko inguru narriatuta dago orain, baina Mundaiz berria ezin da orain bezala geratu. Garapen misto berri baten beharra dago, baina batik bat Hirigintza Jasangarria eta Hiri Proiektuak Gobernu Programa 84/104 kulturaren eta ikus-entzunezkoen industriari lotutako enpresa-jarduera hartuko duena. **EZ DUTE EGIN**

Industrialdeak eta teknologia-parkeak:

- 2016ko hasieran, Papin industrialderako sarbide berri bat irekiko dugu... **LEHENDIK DATOR**

-... eta Zuatzuko, eta Martuteneko 27 industrialdeko zerbitzuak modernizatzen jarraituko dugu. Gainera, azken horretarako sarbideak hobetzeko aukera egongo da. **EZ DUTE EGIN**

Sagues berria:

Birgaitze eta ekipamendu estrategiko honek hiru elementu ekarriko ditu:

- Hotel instalazio estrategikoa, HAPOn aurreikusitakoa; surfaren munduarekin erlazionatutako jolas-eta kirol-eskaintza batekin lotu liteke. **EZ DUTE EGIN**

- Monpas-Sagues oinezkoentzako pasabidea. Berriro hasiko ditugu harremanak Espainiako Gobernuarekin, ingurumen-baimen guztiak dituen proiektu hau finantza dezan. Jarduera berezi honek Donostiako kostaldeko zortzi kilometro baino gehiagoko oinezkoentzako pasealekua amaituko luke, eta donostiarrek nahiz bisitari eta turistek talaia pribilegiatua izango lukete itsasertzean. **EZ DUTE EGIN**

- Sagueseko ingurua berriz ekipatzea eta suspertzea. Espaloiak eta oinezkoentzako eta kirola egiteko espazioak handitzea; ildo horretatik, Sagueseko frontoia estaliko litzateke eta skatean aritzeko ekipamendu bat ezarriko litzateke –kirol hori oso lotuta dago surfaren munduarekin–. Espaziook handitzeak merkataritza- eta aisia-jarduera erraztu eta sustatuko du. Añarbeko Uren estazioaren ondoan dagoen espazioa aparkalekurako utziko dugu. **EZ DUTE EGIN**

Donostialdeko metroaren geltoki berriak, eta Eason eta Intxaurrondon trenbidea lurperatzea:

-Horren harira, proiektua oso-osorik garatzea bultzatuko dugu eta, batik bat, erdigunetik igaroko den pasantea eraikitzea –metropolialdea eta erdigunea lotuko ditu– eta hiriaren ekialdea eta mendebaldea lotzea. **BAI, EGIN DUTE**

-Proiektuaren ondorio izango diren urbanizazioak eta geltoki berrien inguruneak berrantolatuko ditugu, bai eta Loiolako eta Altzako geltokien inguruneak ere. **LEHENDIK DATOR**

Karlos I.a eta Amarako ingurunea:

- Isabel II.aren hiribidetik Errondoko tuneletaraino oraindik ere gelditzen dena behin betiko kentzea aldarrikatzen dugu guk ere gobernu gisa. Konpromiso hori betetzeko, azpiegitura hori hiri-bide bihurtzeko Gipuzkoako Foru Aldundiarekin dugun lankidetzaren bultzatuko dugu. Horri jarraiki, bada, Martuteneko biribilgunea berrituko dugu, bide hori ezabatzeko ez ezik, hiri osorako eta ingururako bide-konexioko puntu berri horretan pilatzen den zirkulazioa arintzeko, eta saihesbidearekiko konexioa gauzatuko dugu hiriaren ekialdean, Marrutxipin. **EZ DUTE EGIN**

- Bidearen hasiera bateko eraldaketari esker –kota jaitsi da eta hiribidearen bi aldeak oinezkoentzako bide bihurtu dira–, segurtasunerako puntu kritiko bat ezabatu da berehala; alegia, Eustasio Amilibia

kaleko lurpeko pasabidea. Karlos I.aren hiribideko bidea ezabatzeari esker, hiribide handi hori oinezkoentzako espazio handi bilakatuko da, eta horrekin batera auzoa berritzen joango da.

LEHENDIK DATOR

-Lanean hasi gara dagoeneko, eta abiarazi dugu auzoko barne-plazak zaharberritzeko plan bat – geroago, gainerako plazei helduko diegu–. **BAI, EGIN DUTE**

- Auzoko instalazioak modernizatuko ditugu, zirkulazioa eta aparkalekuak antolatuko ditugu eta oinezkoentzako bideak hobetuko ditugu (esaterako, Irun plazatik Madril hiribidera doan Isabel II.aren hiribidearen zatiaren parte bat), bai eta Gregorio Ordoñez kaleko espaloiak zabaldu ere. Horrela, hiriespazio nagusi bat sortuko da, bizitza sozialaren topagunea; eta horretan guztian, herritarrek parte hartuko dute. **EZ DUTE EGIN**

- Gobernuaren Ordezkariordeztaren egungo eraikina (Pio XII.aren plazan) lehengoratzea negoziatuko dugu Administrazio Zentralarekin. Espazio hori egokia da udal instalazioak eta, hala badagokio, Amarako barrutiaren egoitza hartzeko, kokalekua eta ezaugarriak aintzat hartuta. **EZ DUTE EGIN**

Unibertsitateak:

- Unibertsitate-eskaintza eta -zerbitzuak hobetzeko behar diren unibertsitateinstalazioak eraikitzea edo birgaitzea erraztuko dugu, udalari dagokion horretan: hirigintza-aurreikuspenak egitea, lizentziak ematea eta lurzorua kudeatzea. **LEHENDIK DATOR**

IX. Gune Publikoak, Ekologia eta Festak

Gune Publikoak

- Urgull: Babes berezia behar du mendi enblematiko honek, eta Donostiako eguneroko bizitzan txertatuta egotea. **EZ DUTE EGIN**
- Ametzagaina: Hiri-inguruko 380.000 metro koadroko parke honi esker, hiriaren ekialdeko biztanleek eskura dute hiri-izaera, baso itxiak eta belardi zabalak uztartzen dituen natura-ingurunea, donostiar guztiek gozatzeko modukoa. **EZ DUTE EGIN**
- Kimaketa Plan bat osatuko dugu, hiriko zuhaitz guztien urteko kimaketa eta zaintza beharrak zehaztuko dituen, eta plan horretan zehaztutakoaren arabera herritarrentzat arazotsuenak diren guneei ekingo zaie aurrena. Auditoretza horren bitartez gure berdeguneen eta zuhaitzen egoera ezagutu ahal izango dugu, eta premia handiena duten espazioetan esku hartu. **EZ DUTE EGIN**
- Halaber, gure parkeen eta lorategien paisaia-aberastasuna zabaltzeko eta balioa emateko plana osatuko dugu. Informazio-liburuxkak eta eskuorri turistikoak argitaratuko ditugu, parkeetako zuhaitz eta lore espezieak identifikatu, eta berdeguneen erabilera kultural, ludiko eta gizalegekoa sustatzeko. **EZ DUTE EGIN**
- Lore-lehiaketak eta pop-up lorategien diseinuen lehiaketak antolatuko ditugu, hiriko parkeen eta berdeguneen paisaia hobetzeko, sormena sustatzeko eta erakargarritasun turistikoa areagotzeko. **EZ DUTE EGIN**
- Garbiketa-plan intentsiboak abiarazi dira. «Gaur zure auzoaren txanda da» programaren barnean, auzoz auzo egingo dira aipatutako garbiketa-lanak, kasuko beharrak eta lehentasunak gorabehera. Mantentze- eta garbiketa-lan handienak behar dituzten auzoekin hasiko gara. Gainera, garbiketa-zerbitzuak ematen dituen kontratistarekin lankidetzan, batetik, kontratua betearazteari buruzko kontrolak zorrotzko dira, eta bestetik, jarduera espezifikoak ugarituko dira garbiketa gutxi egin den lekuetan eta jende gehien ibiltzen den garbiketa-zerbitzua indartu beharreko leku enblematiko edo turistikoetan. **EZ DUTE EGIN**
- Ekitaldi berezietan, San Tomas, Errege Magoen desfilea, Olentzero, estropadak, Aste Nagusia eta Inauteriak kasu, zein kirol-ekitaldietan, Behobia-Donostia lasterketa kasu, jende asko bildu ohi da, nagusiki Alde Zaharrean zein hiri erdian. Horrelakoetan, garbiketa-lanak eraginkortasun handiagoz egiteko, lan-planetan, erabili beharreko aparteko bitartekoez gain, lanak hasteko eta amaitzeko orduak zehaztuko ditugu. Era berean, zikinkeria murrizteko ekintzen atala irekiko dugu, beirarentzako

eta ontzientzako edukiontzi berezia ipintzea eta ekitaldia baino lehenagoko sentsibilizazio kanpainak indartzea barne hartuko dituen. **BAI, EGIN DUTE**

- Herritarren lankidetzeta bultzatuko dugu, bai hiria garbi edukitzeko, bai garbiketa-zerbitzuaren funtzionamendua hobetzeko. Ez zikintzea sustatuko dugu programa espezifiko bidez, eta sustatzaile zibikoaren figura sortuko dugu, jokabide zibikoagoak sustatzeko ardura izango duena. Era berean, hiriko garbitasunari eta zaintzari buruzko udal-arauak betearaziko ditugu, jokabide baztergarrien berri emanez eta horiek zuzenduz. **EZ DUTE EGIN**

Etxeko nahiz industriako zabor organikoa biltzeko bosgarren edukiontzia, txipduna, hiri osora hedatzen hasi gara. Oraindik ere sistemarekiko atxikimendua eta sistemaren funtzionamendua baloratzeko goiz den arren, arrazoizko denbora-tarte baten ondoren, agintaldia amaitu aurretik, hondakin-hondarrarentzako txipdun edukiontzia ezartzearen aukera aztertze konpromisoa hartuko dugu, hondakin-hondar frakzioa txikiagotzeko eta birziklatze- eta konpostatze-tasa hobetzeko. **BAI, EGIN DUTE**

- San Markos Mankomunitatearekin elkarlanean, gure kaleetako edukiontzien mantentze-lanak eta egoera hobetzeko segimendua egingo dugu, edukiontzi erosoagoak, irisgarriagoak eta egokituak ipinita aurrekoen orde, poltsak sartzeko zailtasunak dituzten pertsonak gogoan hartuta. **LEHENDIK DATOR**

- Alde Zaharrean arazoa da bilketa-sistema. Hala, egin daitezkeen hobekuntzak aztertuko dira, bilketa-sistema aurreratuagoak ezartzea kasu, ostalaritzako zein merkataritzako establezimendu ugarietara zein auzotarrei irtenbideak ematearren. **BAI, EGIN DUTE (ABIAN)**

- Tamaina handiko hondakinen gaikako bilketa hobetzeko eta kontrolik gabe botatzea ekiditeko, Garbigune gehiago ipiniko dira, behin horien kokapen egokiak izan daitezkeenak zehaztu ondoren. **EZ DUTE EGIN**

- Akordioak lortu nahi ditugu Gipuzkoako Foru Aldundiarekin eta Hondakinen Partzuergoarekin, galdutako denbora berreskuratzeko eta hondakinak tratatzeko eredu jasangarri eta eraginkorrena guztiz osatzeko eta Eskuzaitzetan ezartzeko. **EZ DUTE EGIN**

- Garbitasunaz gain, hiriak kalitatezko mantentze-lanak behar ditu. Horretarako, aldi behingo - Sustapen Sailarekin eta Udal Informatika Zentroarekin elkarlanean, eta Smart City programaren barnean, hiri-altzarien mantentze-egoera automatizatzea sustatuko dugu. **EZ DUTE EGIN**

- Irisgarritasunean, Donostia lagunkoia eta bizigarria izan dadin, oztopo arkitektonikoak desagerrarazteko eta espaloien beheraguneak zaintzeko eta hobetzeko konpromisoa hartuko dugu.

Era berean, eraikin publikoak irisgarri izateko inbertsioak egingo dira, mugikortasuna murriztuta duten pertsonen oztopo arkitektonikorik izan ez dezaten. **BAI, EGIN DUTE**

- Zaharren egoitzak eta auzo-elkarte batzuen egoitzak hobetzeko eta berritzeko plana abiarazi dugu, oztopo arkitektonikoak kentzeko, gabeziak betetzeko eta instalazio horiek seguruagoak eta erosoagoak izateko. **LEHENDIK DATOR**

-Ondarretako hondartzan, sektoreko zerbitzu teknikoekin eta profesionalekin bat etorritik, erabiltzaileei hainbeste eragozpen eragiten dizkieten hondarrean pilatutako harriak kentzeko beharrezkoak diren jarduerak egingo ditugu. Zurriolako hondartzan, berriz, erabilera arautuko da, bainularien eta surflarien artean bizikidetzatza ahalik eta onena izan dadin. **EZ DUTE EGIN**

Ekologia

Ingurumen-kalitatea funtsezkoa da osasunarentzako eta ongizaterako. Alde horretatik, klima-aldaketa arazo larria da mundu osoan, ezin zaiona aurre egin eskualde-mailatik bakarrik, udalek ere abian jarri behar baitituzte berotegi-efektuko gasen isuriak murriztera bideratutako beharrezkoak diren politikak. Europar Batasunak «20-20-20 helburuak» izeneko neurri sorta proposatu du; berotegi-efektuko gasen isuriak % 20 murriztea, energia berriztagarrien proportzioa % 20 handitzea eta energiaeraginkortasuna % 20 hobetzea 2020rako. Azken batean, 2050erako % 50 murriztu nahi dira isuriak eta gobernu honek konpromisoa hartuko du gure hiriak paper garrantzitsua bete dezan klima-aldaketa arintzea lortzeko erronkan. Berehalako estrategia gisa, baita aurreragorako ere, Agenda XXIen barneko tokiko ekintza-plana gauzatzen jarraituko dugu. **BAI, EGIN DUTE**

Hiriak foroetan presentzia izatea beharrezkoa da. Hori dela-eta, hiriaren presentzia areagotuko dugu beste hiri eta erakunde batzuek parte hartzen duten foroetan eta sareetan. Donostia klima aldaketaren aurkako euskal strategiaren liderra izatea proposatuko dugu, IHOBEn Ingurumen Behatokiaren egoitza bat hartuta, ingurumeneko proiektu estrategikoei dagokienez. **BAI, EGIN DUTE (ABIAN)**

2030erako ingurumen-estrategia berrikusi eta egokitu egingo dugu. **BAI, EGIN DUTE (ABIAN)**

Kontzientziario-politikak hobetuko ditugu, zehazki, eskola-mugikortasun jasagarri, seguru eta osasungarrira zuzendutakoak. **EZ DUTE EGIN**

Zaratari eta isuri kutsatzaileei dagokienez, mugikortasun elektrikoaren gaineko bi norabideko plana sustatuko dugu, batetik, moto elektrikoak sustatzeko, eta bestetik, merkataritza-banaketarako ibilgailu hibridoak eta/edo elektrikoak sustatzeko. Isuri gutxiko eremuak ezartzeko aukera aztertuko dugu, ibilgailu kutsagarrienak zirkulaziotik «kentzeko». Gainera, elkarrizketak abiatuko ditugu Foru

Aldundiarekin pantaila akustikoak jartzeko Loiolako Erriberatan eta saihesbidearen inguruan, hala nola gisa horretako babesik ez dagoen errepide-lotuneetan. **EZ DUTE EGIN**

Bioaniztasunaren arloan, babesu handituko dugu hiriko eremu batzuetan, Landarbason edota Mendizorrotzen kasu. Dibulgazio-politikak jarriko ditugu indarrean, udalerriko bioaniztasunaren balioa ezagutarazteko. **EZ DUTE EGIN**

Dibulgazioaren eta hezkuntzaren arloetako jarduera horietan guztietan funtsezkoa da Cristina Enea Fundazioaren lana. Horrenbestez, are garrantzi handiagoa emango diogu politika jasangarrien eta ingurumen-hezkuntzako eta -kontzientziarioko politiken aldeko apustuari eutsi diezaion aurrerantzean ere, Donostiarena ez ezik, eskualde osoaren erreferentzia izan dadin. Funtsean, gazte zein helduen ingurumen-pedagogia eta -hezkuntza sustatzen jarraituko dugu, Cristina Eneako profesionalen eskutik. Sektoreko gizartearen eragileekin batera arituko gara, tartean, Emaus Fundazioa eta ekintzaile berriak, birziklatze-ekimen berritzaileak garatzeko modan, altzarigintzan, diseinuan eta dekorazioan. **BAI, EGIN DUTE**

Parte-hartzearen alorrean, Ingurumeneko Aholku Kontseiluan bideratu ahal izango dira elkarteak edota banakoen ezagutzaren eta ikuspuntuaren arabera ingurumen gaietarako proposamenak, aholkuak eta ekarpenak. **EZ DUTE EGIN**

Festa Jarduerak

Gure hiriaren agendan festa asko ageri dira. Gobernu honek konpromisoa hartuko du jai herrikoiak babesteko. Alabaina, dagoeneko hirian finkatuta daudenak babesteaz gain, herritarren elkarteak ekimenez espazio publikoa ospakizunaren gertaleku bihurtzeko proiektuak sustatzea beharrezkoa iruditzen zaio. **LEHENDIK DATOR**

Gobernuak baliabide erabilgarrietara egokituko du festa-eskaintza eta elkarteak eta kolektiboak kaleko ekintzen antolakuntzan eta koordinazioan parte hartzea du xede. Gainera, finantziario-iturria bilatzeko deia egingo da, festa-ospakizunei eustea lortzeko. **LEHENDIK DATOR**

Izaera zeharkakoa dute festa-ospakizunek, hainbat faktore barne hartzen dituztelako, tartean, ekologia, berdintasuna edo ohitura osasungarriak. Horiek guztiak espazio publikoan gertatzekoak dira, kalean, eta, ondorioz, beste udal ordezkariak edo arlo batzuekin koordinatuta jardutea beharrezkoa da. Horrela, Ekologiako Ordezkaritzarekin elkarlanean, bitartekoak modu eraginkorragoan erabiltzea izango da helburua, ahal dela, daudenak kontserbatuz, berrerabiliz eta eraldatuz. Horrenbestez, ingurumen-politikak aplikatzen eta hobetzen jarraituko dugu festetan hondakin gutxiago sortzeko (edallontzi berrerabilgarriak, zabor-edukiontzia gehiago, WC kimikoak, etab.). **LEHENDIK DATOR**

Berdintasunari dagokionez, genero-berdintasuneko politikak sustatu eta indartu egingo ditugu Festen Sailean eta eraso sexistei buruzko kanpainak egingo ditugu festek iraun bitartean. **LEHENDIK DATOR**

Osasunari dagokionez, gazteenen artean aisia-ohitura osasungarriak sustatzen jarraituko dugu, indar gehiagoz, eta kontsumo arduratsuari garrantzia emanez. **LEHENDIK DATOR**

Donostiarrentzat zein bisitariarentzat bi dira festa-ospakizun seinalatuenak: Danborrada eta Aste Nagusia. Lehenaren kasuan, auzo batzuetan, bereziki Altzan eta Intxaurrondon, danborrada batzuek izan ditzaketen segurtasun-arazoak arian-arian aztertzeke konpromisoa hartuko dugu. **BAI, EGIN DUTE**

Aste Nagusiari dagokionez, profesionalen talde independente bat eratuko dugu, Sagüeseko kontzertuen egitaraua adosteko. **EZ DUTE EGIN**

X. AUZOAK ETA DEZENTRALIZAZIOA, ERANTZUKIDETASUN HIRITARRA, BERDINTASUNA ETA LANDIKETZA

Auzoak eta Deszentralizazioa

Lurraldeen parte-hartzearen eta deszentralizazioaren eta udal-kudeaketa eraginkor eta erantzukidearen alde egingo dugu apustu; hiriko barrutiak jarriko dira indarrean eta, hala badagokio, Igeldo, udalerrria baino lurralde-eremu txikiagoko toki erakundea sortuko dugu. **EZ DUTE EGIN**

Ekialdeko barrutia martxan jarrita, hiriko lehen barrutia izango dena, eta Igeldo udalerrria baino lurralde-eremu txikiagoko toki-erakundea sortuta, epai judiziala horren aldekoa bada, hasitzat emango dugu barrutien bidez gauzatu den administrazio deszentralizazioaren prozesua, aukera emango diena donostiarrei, kasu honetan Altzan, Intxaurren, Bidebietan eta Mirakruzen bizi direnei zuzenean parte hartzeko auzoko inbertsioak, obrak eta lehentasunezko jarduerak barrutiko zinegotziarekin batera zehazteko, barruti horretara xedatutako aurrekontua kontuan hartuz. Deszentralizazioak, halaber, udal-administrazioaren eraginkortasuna hobetzea eragingo du, hurbiltasuna eta gardentasuna areagotzeaz gain, eta donostiarren bizi-kalitatea ere hobetuko du. **BAI, EGIN DUTE (ABIAN)**

Behin martxan jartzeko prozesua amaituta, indarrean egondako lehen urtea amaitzean, diagnostikoa egingo da, eta positiboa bada, gainerako barrutien sorrera sustatuko da legegintzaldian zehar. **EZ DUTE EGIN**

Hori gertatu arte, bilerak egingo ditugu auzo-elkarteekin zein kezka eta iradokizun dituzten ezagutzeko, eta erabakietan parte hartzera gonbidatuko ditugu, hiriko biztanleen bizi-kalitatea hobetzea dugunez helburu nagusi. Kultur etxeak eta udalaren beste lokal batzuk erabiliko ditugu auzokoen arreta-zentro gisa. **BAI, EGIN DUTE (ABIAN)**

Igeldoren kasuan, epaitegiek bereiztearen aurkako epaia ematen badute, udalerrria baino lurralde-eremu txikiagoko toki-erakundearen sorrera sustatuko dugu gainerako udaltaldeekin eta igeldoarrekin akordioa lortzeko elkarrizketa-prozesu bat hasita. **EZ DUTE EGIN**

Zubieta hiriko enklabe berezia da, eta auzoko batzordearen eskumenak eguneratuko ditugu, prozesu hori auzotarrekin zein Usurbilgo Udalarekin partekatuz. **EZ DUTE EGIN**

Herritarren parte-hartzea funtsezkoa da zenbait erabaki zilegi izan daitezen. Horrenbestez, herritarrek parte-hartzeko programak txertatuko dira udal-eskumeneko hiriko proiektu garrantzitsu

guztietan eta lurralde-informazioaren sistema bat ezarriko da auzoan auzoko eta barrutian barrutiko errealitatea zehatzago ezagutu ahal izateko. **EZ DUTE EGIN**

Kudeaketa publiko partekaturako kontseilu gehiago sortzeak aukera emango du hiriko hainbat sektoretako elkarteak eta eragileak politiken diseinuan eta erabaki partekatuak hartzeko garaian inplikatu daitezten. Hala bada, bi kontseilu berri sortuko dira: Kulturaren Kontseilua eta Kirolaren Kontseilua. Kontseilu horietako kideak arlo horietan lan egiten duten profesional independenteak, erakundeak, klubak eta elkarteak izango dira eta aurrekontu-lehentasunak, hartu beharreko neurriak eta lankidetzaren eta erantzukidetasunaren aldeko estrategiak partekatu eta adostuko dituzte. **EZ DUTE EGIN (ONDAREAREN FOROA, BAI, EH BILDU-REN EKIMENEZ)**

Aurrekontu parte-hartzaileen prozesuari eutsiko zaio, auzotarrekin ezartzeko auzo bakoitzeko gastu-lehentasunak, eta elkarteentzako diru-laguntzen lerroari ere eutsiko diogu. **EZ DUTE EGIN**

Berdintasuna

-Genero-berdintasuneko politikak indartuko ditu herritarren parte-hartzea bideratzeko kontseiluetan, auzo-elkarteetan eta elkarte sektorialetan. **EZ DUTE EGIN**

-Emakumeen Etxea bultzatuko du, Udalaren eta emakumeen elkarten arteko elkar kudeaketari eutsiz. **BAI, EGIN DUTE**

-LGTB kolektiboen (lesbiana, gay, transexual eta bisexualen kolektiboak) elkarte aipagarriekin adostuko ditu sexu-aniztasunarekiko errespetua sustatzeko jarduera-lerroak eta ekintzak. **LEHENDIK DATOR**

-Udalari berari dagokionez, udal langileei eta udalaren mendeko organismoen hizkuntza ez sexistaren erabileraren gaineko prestakuntza emango zaie, hala nola genero-ikuspegia aurrekontuetan txertatzearen zein Udalaren kontratu guztietan eta administrazio-izapideetan ikuspegi hori bermatzari buruzkoa. Administrazioaren esparruan ez ezik, berdintasuneko politikak sustatuko ditu hiriko ekonomia-, gizarte-, kultura- eta kirol-sektoreetan. **LEHENDIK DATOR**

-Espazio publikoari dagokionez, genero-ikuspegia txertatuta diseinatuko da espazio publikoa eta emakumeentzat arriskutsuak diren puntuak desagerrarazteko neurriak hartuko dira. Bide publikoetan egitekoak diren udal proiektu edo jarduera berriek generoaren ikuspegitiko ebaluazioa izango dute, baita, hala dagokienez, beharrezkoak diren neurri zuzentzaileak ere, segurtasunari arreta handia eskainita. **EZ DUTE EGIN**

-Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna, baiki, funtsezko eskubidea den arren, oraindik-orain lan egiten duten emakume askoz gutxiago dago, gizon baino, eta hazkunde ekonomiko eta gizarte-kohesio handiagoak lortu nahi badira, emakumea laneratzea errazteko politikak jarri behar ditugu martxan. **EZ DUTE EGIN**

-Merkatuaren beharretara egokituko ditugu prestakuntzaren eta enpleguaren arloetako udal-eskaintza, emakumeak kontratatzeke edo emakumeen ekintzazailtza-proiektuetara bideratutako ekintza-lerroa txertatuta ekonomia suspertzeko planean. Halaber, prestakuntza- eta gizareratze-plan bereziak eskainiko dizkiegu arrisku- edo bazterketa-egoeran dauden emakume-kolektiboek. Azken batean, diziplina anitzeko ikuspegi integralean oinarrituta, emakume-kolektiboekin eta eragile sozialekin batera, Donostia hiri inklusibo eta berdintasunezkoa izateko helburuarekin egingo dugu lan. **EZ DUTE EGIN**

-Beharrezkoak diren udal-laguntza eta -prestazioak ematen jarraituko digu bizitza duina izateko zailtasun handiak dituzten emakumeentzat, tartean, langabeak eta beren kontura senideak dituztenak, bazterketa-arriskuan daudenak eta tratu txarren biktimak. Gizarte-babeseko hurbiltasunezko sareak sortuko ditugu, nagusiki, bakarrik bizi diren emakumeentzat. **LEHENDIK DATOR**

-Erantzukidetasuna eta familia-kontziliazioa: Erantzukidetasunaren arloko ekimenak eta familia, lana eta bizitza pertsonala uztartzea errazteko mekanismoak sustatuko ditugu, gizonak eta emakumeek etxeko lanen gaineko ardurak parteka ditzaten, eta lana, familia eta bizitza pertsonala bateragarri egin ahal izan ditzaten. Halaber, ordutegiak arrazionalizatzeko politikak sustatuko dira, eta haurtzaindegiak sortzea bultzatu, nagusiki industrialdeetan, enpresa-parkeetan eta unibertsitate-campusetan; kultur udal-zerbitzuen eskaintza eta ordutegiak aztertuko ditugu, familien aisialdi beharretara egokitzeko; hiritarrak kontzientziatzeko kanpainak abiaraziko ditugu. **EZ DUTE EGIN**

-Genero-indarkeriaren gaiari dagokionez, biktimentzako arreta-zerbitzua indartuko dugu, eta, genero-indarkeriaren arloan diharduten kolektiboekin batera ekintza-prebentiboen programa bat osatuko dugu. Lehentasuna emango diogu biktimaren babesari eta osabideari, ekintzak Ertzaintzaren Biktimen Arretarako Zuzendaritzarekin koordinatuta. Genero indarkeriaren biktima diren emakumeentzako teleasistentzia-bitartekoak eskainiko ditugu. Prebentzioari eta sentsibilizazioari dagokionez, hezkuntza- eta kontzientziazio-kanpainak abiaraziko dira, hala nola tratu-txarrak eta genero-indarkeria salatzeari buruzkoak, arreta berezia eskainita ikasleei eskola-adinetik aurrera. **EZ DUTE EGIN**

Genero-indarkeriaren arloan lan egiten duten elkarteei bideratutako diru-laguntzei eutsiko diegu **LEHENDIK DATOR**

Lankidetza

Lankidetzari eta kultura-aniztasunari dagokionez, kontuan hartu behar da Donostian erroldatutakoen % 10 atzerritik etorria dela. Horrenbestez, gure hirian beste hizkuntza batzuk hitz egiten dituzten eta beste kultura batzuetakoak diren donostiarrak egotearen aberastasuna ezagutarazteko eta onesteko gai izan behar gara. Ezin dugu aipatu gabe utzi Europa jasaten ari den migratzaileen drama, Ekialde Hurbileko eta Afrikako gerren edo gatazka politikoen ondorioz. Arazo horri aurre egiteko beharrezkoa da elkartasunez eta ikuspegi humanitario batez jokatzea, gurera etorriko direnei harrera egin, eta mantenu duina izateko erraztasunak eta baliabide beharrezkoak eskainiz, arloan inplikaturako administrazio eta erakunde guztiekin koordinatuta. Alabaina, hazkunde-aukera gisa ere hartu behar dugu, bai kultura-aniztasunari dagokionez, bai pertsona horiek eskaini dezaketen balio erantsiagatik.

EZ DUTE EGIN

Lankidetzaren arloan, diruz lagunduko diren proiektuak eta lankidetzarako udal-planak baloratzeko irizpideen artean pobrezia-adierazleak sartuko ditugu. Udal baliabideak zorrotz kontrolatuko ditugu, lankidetzaren eta hezkuntzaren arloetako programetara eta sentsibilizazio- nahiz hezkuntza-proiektu berrietara bideratutakoak gehituz. Udal-talde guztiek ados jartzea bilatuko dugu programa horretara bideratutako baliabideak bermatzeko, udal baliabideak murrizten badira. Lankidetza-proiektuetara bideratutako udal baliabideen erabilera zuzen eta eraginkorrerako kontrola sendotuko dugu eta urteko txostenak zein kontrol-txostenak argitaratuko ditugu gardentasunaren mesedetan. **EZ DUTE EGIN**

Euskal Fondoarekin elkarlanean jarraituko dugu arlo horretan. Kultura anitzeko ondare hori bistaraziko dugu, kultura-jardueretan eta ekitaldien programazioan presentzia izan dezan eta txertatuta egon dadin eta hirian bizi diren kultura desberdinetako artisten eta sortzaileen arteko trukea eta ezagutza egiazkoak izan daitezen. Horretarako, Donostian aktiboki eta modu integratzailean lan egiten duten elkarte eta talde kultura anitzekoek hartuko dute parte. Zero tolerantzia izango dugu arrazismoaren eta xenofobiaren aurrean. **LEHENDIK DATOR**

Donostia Kulturarekin eta kultura-arteko erakundeekin nahiz elkarteekin elkarlanean, Aniztasunaren Astea antolatuko dugu urtero Donostiako errealitate kultur anitza eta eragile horiek hirian egunez egun egiten duten lana ezagutarazteko. Horretarako, elkarteentzako diru-laguntzei eutsiko zaie. **EZ DUTE EGIN**